



Adingabe atzerritarrendako Sakana egoitza

Iturmendin egoitza, tutoretzapeko etxeak herrietan / 6

Dinabide eraldaketa digitalerako esparruan ekintzailtza bulkatzeko sarea / 7

Ezkurdia-Zabaleta eta Martija-Irribarria Sanferminetako Binakako Torneoko trofeoaren bila / 16

Irati Urrestarazuk erakusketa mustu du Rekalde aretoan: "bi urte hauek aireratze bat izan dira" / 21

Lau enpresek ikerketa eta garapena proiektuetarako 150.000 euro jasoko dituzte / 8

Ioseba Fernandezek Bartzelonako World Roller Games irristaketa mundialei ekingo die etzi / 17

Duela 25 urte mustu zuten Jose Ulibarrenaren 'Altsasuko Sustraiak' eskultura plazan / 23



Ospatzeko arrazoiak

Altsasuko Dendari Elkarteak 25 urte bete ditu / 2-5



Altsasuko Dendarien Elkarte
Asociación de Comerciantes de Alsasua



Gorka Garcia, Alonso Asensio eta Eduardo Alvaro 1994ean argitaratutako aldizkaria parean dutela.

"Etorkizuna? espezializazioa"

Altsasuko Dendarien Elkarteak 25 urte bete ditu. Aurreneko zuzendaritzan izan diren hiru dendarirekin elkartu gara, eta hainbat hizpide izan dituzte: konpetentzia, Internet, prestakuntza, administrazioak, etorkizuna, ibar sena, azpiegiturak edota elkartegintza

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Altsasuko Dendarien Elkartearen (ADE) aurreneko zuzendaritzan aritu ziren Eduardo Alvaro (Norte erloju-denda), Alonso Asensio (Asensio moda) eta Gorka Garcia (Izara). Gerora, zuzendaritzan bat egin zuten berriro behin baino gehiagotan. Zehaztapena egin digute ere, "hau ez da Altsasuko merkataritzaren argazki erreala, gehienak emakumezkoak dira".

ADEren aurretik Zurekin dendari elkarte izan zen Altsasun. Asensiok gogoratu duenez, "N-1

errepidearen saihezbideagatik mugitu zen. Hura egiterakoan bazirudien gelditu behar gine-la..." 1982ko azaroaren akaberan mustu zuten azpiegitura, eta Altsasu erditik egunero 10.000 bat ibilgailuk pasatzeari utzi zioten. "Horren kontura sortu genuen elkarte". Asensiok gogoko du Zurekin izena, "zehatza da". Alvarok, aldamenetik: "orain Eroskik kopiatu du".

1994ko ilbeltzaren 21eko bile-ra gogoan du Garciak. "Udalaren apustu oso handia izan zen, gero gauza asko zer egin jakin gabe

gelditu ziren. Dendariok antolatzeke, nola antolatu eta kontuan hartuko den eta benetan indarra duen zerbait nola gauzatu ideia argirik ez dugulako edo... Erakunde-apustua egonda, gero babes batzuk egotea, funtzionatzen ari den, merezi duen... Errua udalarena eta dendariena izan zen, biena".

Alvarok azaldu digunez, "Nafarroan elkarte gutxi zeuden. Gobernuaren Merkataritza Departamentuak dirua zuen, dirutza jaso genuelako. Beti bezala, dirua dagoenean gauzak egiteko

aukerak daude. Zerbait sortzen denean, udalak elkarlan eta zuzeneko harreman gehiago eskaintzen ditu. Gero sekula ez da horrela izaten. Hala dira gauzak. Ez da inor errudun egitea. Denok dugu gurea".

Garciak egitekoa zehaztu die administrazioei: "merkataritzaren krisia badago, erakundeek zati garrantzitsua dute. Gu tratzen, erantzuten laguntzeko ardura dutelako. Baita konpetentziak legitimoak izateaz ere. Gu ez gara halako erabakiak baldintzatzeko merkataritzagune handiak bezain lobby handia. Zentzu horretan merkataritza etxeko anaia tontoa da: sektore oso garrantzitsua gara, baina kezkatzen ez garenez, gauzak egiten segituko dute". ADEren sorrerarekin hasi ziren hirietako aldirietan merkataritzagune handiak ugaritzen. Garciak zehaztapena egin du: "gu herrietako, auzoetako eta bizitzarekin kolaboratzen dugu. Besteek kontrakoa egiten dute, bizitza ateratzen dute. Hori erakundeen politika da".

Alvarok jakinarazi digunez, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak merkataritzaren sozio-ekonomia garapeneraren aurreneko ikerketa egin zuen. "Ganbera orduan gurekin ongi portatu zen. Irizpide onarekin, Ganberak ikerketaren zati bat alde batera utzi zen. Ordurako ikerketan zehazten zen Altsasuk kanpoko aldean merkataritza-gune bat beharko zuela. Lehentasunezko kokapena Olatzagutia aldera zen. Eta, bestela, suhiltzaileen parkearen parean. Hurrengo ikerketan, edo norbaitek bere ikerketa egin zuen eta dena muntatu zuten".

Salmenta teknikak

Dendariak elkartu zirenerako telebista pribatuak egonkortuak ziren eta haien bidez produktuak saltzen ziren. Katalogo bidezko salmenta ere handia zen. Orain Internet dago. Garciak: "salmenta teknika berriak daude. Haien atzean beti enpresa handiak daude. Teknika horiekin ahalik

eta bezero sorta handiena bereganatzera doaz. Mota horretako salmenta beti egon da. Gai horiei beti beldurra izan zaie. Izan behar dena da informazioa eta salmenta teknika guztiei errespetua. Baina baita erantzuteko prestakuntza eta trebakuntza ere. Internet beste guztiak gainditu dituen iraultza izan da". Alvaroren iritziz "gizarte aldaketa bat izan da".

Garciak: "Interneten faktore nagusia da komunikazioaren erraztasuna eta abiadura, bai merkataritzan, bai gainontzeko guztian. Dendariak ez gara tresna horiek erabiltzeko trebatuak izan. Izan ere, dendariok egiteko asko ditugu, 10-15eko zerrenda ateratzen zait. Halako enpresa batek egiteko bakoitzerako pertsona bat edo batzuk ditu. Guk dena egin beharra dugu. Internet eta sare sozialen moduko egoera iraultzaile baten aurrean merkataritzaren % 90 edo gehiago tokiz kanpo dago eta ez daki nola egin". Dendako erakusleho parean dagoen bezeroak mugikorrean prezio konparatzaileak izan ditzaketela azaldu du. "Sare sozialen iraultza eta komunikazioaren azkartasuna ezagutu beharra dago, nahiz eta gero ez aplikatu. Baina lagundu behar du bezero profila bereizten. Non kokatu. Nire bezeroa horren eraginpean dago, erosteko bide horiek erabiltzea da errazena".

Asensiok Julio Barronek dendaren zueneko adibidea eman du: "bakarren bat gerentiaz galdeka joan eta hark erantzuten zuen: ni naiz kudeatzailea, erosten duena, ordaintzen duena, kontularia... Gaixoa. Nire alaba ero moduan dabil dena ordenagailuan sartzen. Egun osoa horretan. Erakuslehoia aldatzeko betarik ere ez du".

Merkataritzan eragin handia izan duen beste aldagai bat gaineratu du Alvarok, soziopolitika. "Politika aldatu egin da. Dendariok soldatak aldarrikatu behar genituela esateagatik nitaz barre egin zuten inoiz. Low costera jo da: soldatak jaitsi



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti
ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

dira, ez du ematen. Dugun biztanleria dugu, eros-ahalmenak behera egin du. Biztanleria horrekin salmenta kopuru bera baldin badugu, baina prezio erdian, gure irabaziek hondoa jo dute. Merkataritza hori gertatu da, gobernuen eta administrazioen garapen soziopolitikoagatik izan da. Horra eraman gaituzte. Jakina, azkarragoak direnek, sareen bidez salmentak biderkatzea lortzen dutenek, handiek, euren salmentak handituz salbatzen dute. Salmenta horiek txikiagoengan eragina dute, dagoeneko bezero kopuru bera ez baitugu, sarearen bidez ari direlako. Dinamika honetan dendek ez dute etorkizunik".

Garciaren iritziz denda txikiek etorkizuna dute. "Mugitu beharra dago eta pentsaera aldatu. Debaluazioa segmentu batean eman da. Badago gauza batzuenetik asko ordaintzen duen jendea. Gure negozioa kudeatzea tokatzen zaigunean uste dugu gure bezeroak ate paretik pasatzen diren guztiak direla. Ez da horrela". Gaur egun bezeroaren fideltasuna irabazteko beste birtarteko batzuk daudela gaineratu du. "Interneten enpresa batzuek dendari askok baino hobe tratatzen dute bezeroa. Zer gertatzen den ikusteko probatu egiten dudalako dakit".

Sarea

Joandako garaietan dendei denak ia ongi funtzionatzen ziren, baina orain haietako askok ez dute jarraipenik. Ikuspegia aldatu beharra aldarrikatu du Garciak: "zein produktu eskaini dezaket nagoen tokian, produktu hori merkaturatzeko eta eskaria izateko zer kompetentzia dago. Zer egiten du produktu honek hemen?" Eta ekuazioan hornitzaileak sartu ditu: "hornitzailea edo fabrikatzailea desleiala bada eta nire prezioak errespetatzen ez dituen prezioak Interneten baditu, nik horrekin ezin dut lanik egin. Zeren bezeroa nire dendara etorri aurretik begiratu du. Gure egin beharra da fabrikatzaile, produktu eta prezio desleialetatik aldentzea".

Asensiok beste aukera bat gaineratu du: "fabrikatzaileak bestela Amazoni edo halakoren bati salduko dio". Eta Garciak adibidea jarri du: "nire hornitzaile batek Amazonen dendetan ez dagoen produktu linea sartu du. Eta dendetan dagoen linea % 10



Jose Angel Agirrebengoa alkatea ikastaro bateko diploma ematen Eduardo Alvarori, Alonso Asensioren begiradapean, 1995ean. ARTXIBOA

garestiago dago salgai Amazonen. Hori gure lana errespetatzea da. Katalogotik kanpo duen produktua, gainetik kendu nahi duena, Interneten merke egonen da".

Jendeak markekin duen lotura nabarmendu Asensiok. Garciak bezeroa heztearen egitekoa jarri du mahai gainean: "esan beharke diogu Interneten ikusten ari den produktu hori dendan ez dagoela, aurreko denboraldikoa delako. Bezeroek askotan gu baino azkarrago informatzeko gaitasuna dute. Dendek azkar birkokatu beharra dugu, gainetik pasa ez gaitzaten. Fabrikatzaileei etika bat mantentzea eskatu behar diegu. Denden borroka garrantzitsu bat da hori". Alvarok "gaur egun normala" den zerbait aipatu du: "produktu bat toki txiki batean sal dezake eta bezeroak mundu guztian izan ditzake". Hala ere, bezero askok pertsona batekin aritu nahi dutela eta Interneten hori sekula ez dutela opatuko nabarmendu dute.

"GUK HERRIETAKO BIZITZAREKIN KOLABORATZEN DUGU. BESTEEK KONTRAKOA EGITEN DUTE, ATERA"

Eta Garciak gogorarazi du ez direla "egun bakarrek dendariak. Profesional onak saltzeagatik ez dio produktu eskasagoa salduko eta irabaziak murriztu. Nik erantzun beharra dut, ezin diot zailtazko produkturik saldu". Asensiok "izututa" joan zitzaion taila handiko bezero baten adibidea eman du: "bi praka erosi zituen. Haietako bat janztean poltsikoetako josketak hautsi zitzaizkion. Larrituta etorri zen. Zergatik? Hautsi bada, beste bat emanen dizut. Dudarik gabe".

Joerak

Ganberak Gure Etxea eraikinean antolatutako bilera batez gogoratu da Alvaro. "Ordurako dendek etorkizuna ez zela ona ikusten zen. Europarekin bat-etortzen ari ote ginen, egoera zein ote zen galdetu zioten hizlariari. Eta gure etorkizuna Europari begiratzea dela esan zuen. Esan genion Altsasuk 7.000 biztanle zituela eta Frantzia tamaina horretako herri batean ez dago ez dendarik ezta ostalaritzarik ere. Hori da etorkizuna? Baietz erantzun zuen. Zenbat urtetan? Hori da asmatzen zailena".

Bere ustez "horretara jotzen ari gara. Niretako Gipuzkoak alde handia ateratzen digu. Altsasu beti Beasainekin konpara-

tzen dugu (13.863 biztanle 2016an), baina Lazkao gara (5.426 biztanle 2016an). Ni herrietara joaten naiz, herriak ikustea gustatzen zaidalako. Lazkao izugarri hobetu da, oso polita dago, baina ez du ezer. Erabateko bizitegi-herria da. Hori esan eta Beasain ondoan dagoela diote. Kasik denbora bera kostatzen da Lazkao Beasainera joatea Altsa-sutik Iruñera edo Gasteizera joatea. Hemen mugitzea oso erraza da". Alvarok joeran buelta emateko sintomarik ez du ikusten. "Beraz, Altsasun dendek etorkizuna gero eta gutxiago izatea da. Etorkizuna dago? Oso espezializatuta, bai". Horretarako dendariak duen produktua oso ongi ezagutu behar duela nabarmendu Garciak. Alvarok gaineratu duenez, "zureak dagoeneko bezero globalak dira. Nahi duzun herrian egon zaitezke".

"Uhartea Arakildik edo Aguiraindik etortzen direnak mimatu" behar direla nabarmendu du

"ZUREAK DAGOENKO BEZERO GLOBALAK DIRA. NAHI DUZUN HERRIAN EGON ZAITEZKE"

Asensiok. "Udalarekin bat aparkalekuak prestatzeko borrokatu behar dugu. Herri honetan ezin dela aparkatu keza aritzen dira. Errioxako edozein herrira zoaz eta edozein izkinatan P bat opatzen duzu, etxe bat bota dute eta bost autorentako aparkaleku prestatuta dute. Altsasuko arazoetako bat aparkalekuak direla uste dut. Jendea asko kezkatzen da. Zumarragan aparkaleku eder-rra egin dute. Legazpin gauza bera. Iortia kultur gunea azpian lasai asko egitea zegoen. Egiteko gutxi falta izan zen".

Administrazioez

Alvaroren iritziz udal dendek alde gauza asko egin ditzakete eta merkataritza ikuspegia eskatu die. "Altsasuk beti lokomotorak behar izan ditu. Izan zitzakeen. Oraintxe enplegu bulego herri erditik joan da, beheko merkataritza-gunearen pare-rama eraman dute eta hemen ez du inork protesta egin. Ordura arte jendeak behintzat erdiguneraino etorri beharra zuen". Udal bati egindako proposamena azaldu du: "gobernuari eskatzea errenta aitortpena egiteko ogasuneko bulego bat zabal zezala errenta garaian. Aukerak ez zitezela izan soilik bankura edo Iruñera joatea. Hurrengo orrialdean segi>



Elkarrizketaren ondoren zein bere dendara lanera joan zen. Alonsoren denda da jarraipena ziurtatuta duen bakarra.

<Aurreko orrialdetik heldu da

Horiek edo bestelakoek Altsasura etorriko den jende jario bat sortuko dute".

Egun Altsasuk duen inertzia bakarra azoka besterik ez dela nabarmendu Asensiok. Alvaro: "inertziak sortzea ez da gure egitekoa. Guk babes dezakegu, baina hori udalaren ikuspegi politikoa da". Garciak aitortu du Diaz de la Lastrak eman zien ikastaroak bere merkataritza pentsaera aldatu ziola. Alvarok azaldu duenez, gerora Altsasutik pasatu eta esan ziola: "herritik buelta bat eman dut eta ikastaroan hitz egindako ezer ez ez duzue aplikatu. Berak esan zigun lokomotora bat sortu behar genuela. Erakargarritasuna izanen zuen zerbait. Ezer ez duzue egin".

Sakanako Mankomunitateari inplikazioa eskatu dio. "Zerbitzuak deszentralizatzearen kontra ez nago. Baina zerbitzuak deszentralizatuta, ez dut ulertzen herrien arteko komunikaziorik ez egotea. Araban herrien arteko komunikazio linea sortu dute. Esaterako, Zalduondon bizi den 70 urteko emakumezko batek hots egiten du eta esaten du: bihar Gasteizera joan nahi dut. Taxia jartzen diote, Aguraineko autobus geltokira eramaten dute, andrearendako kosturik gabe".

Ibarreko erakundearen Irurtzun eta Ziordia etengabe lotuko dituen autobus bat jartzea ere ez dute la pentsatu gaineratu du. "Dena ohitura kontua da. Hori ez da gure kontua. Guk babes deza-

kegu, zerbait sustatu". ADEK halako ahalegin bat egin zuela gogorarazi du Asensiok: "erosketa tiket bat erakutsita bidaia doan zuten. Jendeak apenas zekien zerbitzuaren berri. Bakarren batek porrotzat hartu zuten. Berrirori saiatu ginen, baina alferrik. Idiazabaldik Beasainera ordu-erdiro duzu".

Garciaren iritziz "hemen, zentzu horretan, erabateko utzikeria egon da. Zuzendaritzan egon nintzen azken aurreko aldian, bi helburu proposatu nituen. Bata, elkarte Sakanara zabaltea, eta ostalaritza eta zerbitzuak hartzea ere. Azken horiek elkarte barruan egotea askoz aberasgarriagoa iruditzen zitzaidan. Bestea, udalarekin harremana izatea, udalari bilerak eskatzen ez ibiltzeko. Udalak erabaki zuen Garapen Batzorderekin bilera bat izatea, uste dut, hilerro. Juanjo Aldasoro presidentea zen eta ni presidente-ordea. Bileretan talde batek berak ere ez zuen kontrako traba bat ere jarri. Plenora ez zen ezer iristen. Eta iristen zenean inork ez zituen proposamenak defendatzen. Adierazgarria. Urte eta erdi egon ginen horrela. Horrek suntsitzen zaitu!"

**"ERAKARGARRITASUNA
IZANEN ZUEN ZERBAIT
SORTU BEHAR
GENUELA ESAN ZIGUN.
EZER EZ DUGU EGIN"**

Sakanaz

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte sortu da. Garciak establezimendu gehiagorengana iritsi nahiko luke: "gainontzeko establezimenduek elkarte ezinbestekoa dela ikusteko gehiago egin beharko litzateke. Gauzak egiteko. Jendea herrian toki batetik bestera mugitzeko, eta ez herritik norabait. Barne- eta espazio-sinergiak sortzea".

Asensiok emaztearekin Lakuntzara joatean entzundako harridura adierazpena aipatu du: "hara, altsasuarrak hemen erosten! Lakuntzarrak Altsasura eroatera joaten badira, ni ere herrietara joanen naiz. Horrek normala beharko luke."

Alvaroren iritziz "Sakanan lehiakortasunean lehiatzen gara. Herria herriaren kontra lehiakortasuna. Herri batek bestean babesa bilatu beharko luke, dendari batek bestean babesa bilatzen duen moduan". Herri guztietan dena egotearen beharra auzitan jarri du: "Sakanan musika eskolak daude Altsasun, Etxarri Aranatzan, han eta hemen. Zergatik eman behar dira instrumentu guztiak Altsasun? Komunikazio zerbitzu bat izanez gero, Altsasun ikasketa batzuk emanen liriteke eta Etxarrin beste batzuk. Altsasuarrak Etxarrira joanen liriteke. Txikitatik ikasiko lukete herri batetik bestera ibiltzen. Pilota eskolarekin gauza bera. Sakanako futbol talde bat egin zitekeen?"

Ez gara hainbeste biztanle. Non jokatu beharko luke? Zergatik ezin da hori guztia elkarrekin egin? Erakunde publikoetatik ibar zentzurik, espiriturik ez badago, ez dugu Sakanarik. Geografikoki bai, baina gizarte errealitatean ez da existitzen".

Ados egonda, Garciak "herrien gehiegizko konplexuak" aipatu ditu. "Nik sakandarrei eta altsasuar batzuei literalki entzuna da: Altsasuk Sakana ordezkatzen badu idiosinkrasian galtzen da. Ibarraren idiosinkrasia ez dela ongi islatzen. Hori izugarria da, penagarria da. Altsasuaren artean ere bada. Errealitatea ez onartzea da hori. Ibarra dena da eta burua Altsasu da. Baina horregatik ez da onartu nahi". Hori gazteria ohituz aldatuko litzatekeela gaitzatu du Alvarok: "gauzak han edo hemen egon daitezkeela, joan-etorriaren gabiltza. Komunikaziorako erraztasuna duzu".

Zergatik elkartu

Hirurak hasieratik daude ADEN eta zergatia jakin nahi izan dugu. Alvarok aitortu digu elkartearen aldekoa dela, baita elkartearen denbora dela ez duela ezer egiten ere: "ideia bat badut eta

**"ESTABLEZIMENDUEK
ELKARTZEA
EZINBESTEKOA DELA
IKUSTEKO GEHIAGO
EGIN BEHAR DA"**

lanerako gogoz harrapatzen banau, zuzendaritzan egoten saiatuko naiz. Edo ideia hori defendatzeko norbait bilatuko dut. Bestela, zuzendaritzan daudenei lan egiten uzten diet. Egiten dutena ez zaidala gustatzen esatea beroaldi merkeak dira. Egiten ari denarekin ados ez bazaude, eta ekarpena egin badezakezu, ziurrenik zuzendaritzan tokia egingen dizute. Babesa behar duzula, bizpahiru opatu".

Asensiok alabagatik daki bileretara joaten ez den eta gero protesta egiten duen jendea badagoela. "Joan beharra dago. Eta ni presidente jarri ninduten zaharrena nintzelako. Ez onena nintzelako. Eta bazkide egitearena, 1994an atera genuen aldizkarian argi asko jartzen zuen: saihebidia eta merkataritzagune handiak krisiaren faktore eragileak; dendariak isolatuta gelditzea saihestu behar dute. Hiperrren booma pasako da beritasuna izateari uzten diotenean. Kontsumitzaileek eskaintza eta eskaria kontuan izan behar dituzte. Altsasun badago. Denetarik dugu".

Garciak elkartearen egoteko arrazoiak eman dizkigu: "aurrena, bakarrik galduta gaudelako. Gainera, baliogabeak gara". Argitu duenez, orokorrean, dendariak, lan egiteko moduagatik, "nahikoa egozentrikoak eta egoistak" dira, "itxi egiten gara gure negozioa defendatu behar dugulako. Asoziazionismoa ezin dugu mespretxatu". Jendearekin lan egitea gustuko duela nabarmendu du, baita aitortu "oso zaila dela. Nire negozioaz iritziak trukatzeko gustatzen zait. Elkarte geografikoa, herrikoa, eskualdekoa, niretako ezinbestekoa da. Beste kontu bat da gauza asko egin daitezkeela eta ez direla egiten". Garciak elkartearen zerbitzu egitura gisa ikusten du, ez denda batuketa gisa. Eta bata bestearen osagarri diren dendasarea aldarrikatu du.

Herri edo eskualde elkarteek aparte, sektoreko elkarteak nabarmendu ditu Garciak. "Arlo batean ari garen denden parekoak gertu edo urrun bilatu. Elkarrekin gure produktua bereizi, erosketa zentralak edo erosketa elkarteak sortu, elkarrekin hornitzaileei erosketa baldintzak ezarri". Bera horrela ari da.

Osorik: www.guaixe.eus

Udalak sustatu zuen elkartearen sorrera

Altsasuko Dendarien Elkarte 1994an sortu zen udalaren ekimenez. Mende laurdenaren ondoren elkarteak 35 kide ditu. ADE herritarrekin 25. urteurrena ospatuko du irailaren 7an, 4. Merkataritza Festa ospatzearekin batera

A. Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasuko Dendarien Elkartearen (ADE) aurretik beste elkarte bat izan zen Zurekin izenekoa. XX. mendeko 80ko hamarkadaren erdialdera sortu zen, baina hurrengo hamarraldian jardunik gabe zegoen. 1993-1996 Nafarroa Iparraldeko Plan Estrategikoan jasotzen zenez, Altsasun 148 denda zeuden, mila biztanleko 21,37 denda.

Udalak herriko dendariak bilera batera gonbidatu zituen 1994ko ilbeltzaren 21erako. Ehun bat pertsona bildu ziren eta Jose Manuel Goikoetxea alkatearen, Yolanda Jugo Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberako teknikariaren eta Cederna-Garalurreko agente Susana Mendinuetaren azalpenak entzun zituzten. Azken bi erakunde horiek izan ziren hasierako ikerketa egin zutenak. Bileraren ondorioa izan zen Altsasuko merkataritza batu eta ordezkatu duen elkarte bat sortzea, sektorearen arazoak aztertu eta berriz indartzeko. Bileran 11 pertsonaz osatutako behin-behineko batzorde bat osatu zen, astelohenero bilduko zena.

Bilerek fruitua eman zuten eta martxoaren 21ean egindako bileran 70 bat dendarik ADE sortzea erabaki zuten. Bakoitzak



ADEk 2000. urtean milioi erdi pezetako saria banatu zuen (3.005 euro). ARTXIBOA

hilaro 3.000 pezeta (18,03 euro) ordainduko zuten. Hurrengo urteko ilbeltzean zuzendaritza batzordea berritu arte elkarteko buru Alonso Asensio izanen zela erabaki zuten. Lehendakariordea Luis Garde zen, Puy Senar idazkaria, Jose Manuel Ribas diruzaina eta zazpi bokal zeuden: M^a Carmen Lopetegi, M^a Luisa Zufiaurre, Javier Vicente, Gerardo Mazkiaran, Eladio Merchan, Gorka Garcia eta Eduardo Alvaro. ADEko kideek hurrengo pausoak emateko aurreneko bilera deitu zuten, hiru

erakundeen laguntza espero zuten. Herriko merkataritza eskaintza antolatzeko proposamenak egiteko Nafarroako Gobernuaren programa bat martxan jarri nahi zuten, haren bidez dendendako laguntzak lortzea espero zuten.

ADEk estatutuak apirilaren 22an aurkeztu zizkion Nafarroako Gobernuari. 63 dendari ziren, dendendak erdia, baina salmenten eta fakturazioaren % 80a ziren. Estatutuak aurretik zegoen elkartearenaren oso antzekoak ziren. Haren xedeak dira, au-

rrrena, administrazio publikoen aurrean merkataritza ordezkatzeko, elkartearekin eta kideekin lotutako gaietan. Bestetik, lurraldeko organo pribatuen eta publikoen aurrean merkataritza interesak eta jomugak bere gain hartzea. Gainera, iritzi publikoaren aurrean merkataritza irudia defendatzeko sortu zen ADE. Merkataritza kohesioa eta euren interesen arbitratzea bermatzeko, merkataritza arteko loturarako eta kooperaziorako tresnak eskaintzea. Kide direnen informazio, prestakuntza, ikerketa eta hobekuntza beharrak asetzeko, zuzenean edo zeharka. ADEren beste xedeetako bat da bere eremuan merkataritza eta ostalaritza sustatzea. Aldi berean, elkartasuna sustatu eta asistentziako zerbitzu komunak sortu eta sustatzeko xedea du merkataritza kideen artean. Atzena, ospe profesionala bermatzea, legez kontrako lehiakortasuna eta lehiakortasun espekulatiboa eragotziz.

Leloa

Irurtzun eta Agurain artean Altsasu merkataritza gune gisa berriz sustatzeko ADEk *Altsasu, urrutia goan gabe* leloa aukeratu zuen. Elkarteak 7 milioi euro pezetako (42.070,85 euro)

aurrekontua izan zuen aurreneko urtean, erdia Nafarroako Gobernuak emana. Aurrekontuaren zati bat 32 orrialdeko aldizkari baten 4.000 ale argitaratzeko izan zen, San Pedrotarako kalean zegoen. Altsasuko festetarako eta udazkenerako kanpainak aurreikusitako zituzten, baita eguberrietarako ere, aurreko biak baino indartsuagoa izanen zena. Aurreneko urtean dagoeneko prestakuntza saioak aurreikusitako zituzten: informetika eta dendendakudeaketa integratua. Udalak, bestalde, aparkalekuen gaia eta Zumalakarregi plaza-Iortia, San Juan eta Gartzia Ximenez-Zelai hiru merkataritza guneen seinalezapena hobetzeko konpromisoa hartu zuen. Elkartekideei eta dendariei guttiaren berri zehatz emateko maiatzaren 25erako bilera deitu zuten zuzendaritzak.

ADEk logotipoa behar zuen eta horretarako lehiaketa antolatua izan zen. 43 lan aurkeztu ziren eta irailaren 10ean jakinarazi zuten zein zen haien irudia: hiru marra dituen etiketa bat zen; marra bakoitzak Iruñea, Gasteiz eta Donostiarako errepideak islatzen zituzten eta puntu batean bat egiten zuten, Altsasun. Logotipoaren egilea Ana Erbiti Ortiz gasteiztarra izan zen.

Merkataritza eta ostalaritza datuak

	Altsasu	Sakana
• Biztanleak	7.471	20.255
• Denda, kopurua	156	364
• Dendetan dauden langile kopurua	301	585
• Ostalaritza, kopurua	42	119
• Ostalaritzako langile kopurua	149	297

Iturria: Sakanako Garapen Agentzia. 2016ko datuak.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Bateti bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEN
GUAIXE.EUS

SAN FERMIN
SAIO BEREZIAK
IRUÑEATIK
EH IRRATIAREN ESKUTIK

• Uztailak 6 10:00etatik 12:30etara
• Uztailaren 7tik 12ra 12:00etatik 14:00etara



ASTEKOA

ZOILA BERASTEGI

Justiziaz eta kartzela

Bazkal osteko familia hizketaldi luze horietako batean, kartzelaz, delinkuentziaz eta justiziaz aritu ginen, momentuko beroaldian nork bere arrazoiari eutsiz. Batzuetan, baina, zaila izaten da momentuan ideiak ordenatu eta ganoraz azaltzea, besteak zure ustea ahalik eta hobekien uler dezan. Hala ere, ez nioke gaurkoa hizkuntzaren mugei eskaini nahi.

Maiz Justizia eta kartzela zigorra parekatzen ditugu, txanponaren bi aldeak balira bezala. Delituaren tamaina eta larritasuna aintzat hartuz, zigor handiagoa edo txikiagoa galdegin ohi dugu. Azken sententzia geure barne-epaile-propioak emango lukeen sententziarekin bat baldin badator, justizia egin dela baieztatu ohi dugu (eta alderantziz).

Baina Justiziak, komunitate baten ongizatea bermatzeko aplikatzen diren printzipioak izanik, ezer gutxi du ikusteko kartzelarekin. Pertsonen bizitzek garrantzia hartu izan duten heinean, askatasuna kentzea zigortzeko modu bat bilakatu da. Dena den, inork gutxi uste du pertsona bati autonomia kentzeak,

NORBERE IDENTITATE ETA ERROEKIN GUZTIZ AKABATZEKO BALIOKO LUKE

argia noiz piztu-itzali erabaki ahal izateak, bere izen-deiturak zerbaki batez ordezkatzeak, bere familia eta lagunengandik urruntzeak, zementuzko eremu batean egoteak, monotonía eta errutina errepikakor baten barruan bizitzeak, edota beldurrak jota egoteak,

birgizarteratzeko balio duenik, ezta? Izatekotan, norbere identitate eta erroak guztiz akabatzeke balio luke.

Nahiko paradoxikoa dirudi pentsatzeak ongizate komunitarioa lortzeko komunitate horretako zerbait, laidotu, baztertu eta barkatu egin behar ditugula; beren onera itzultzeko itxaropenez gainera! Egia da errazagoa dela indibiduoa epaitzea, sistema kapitalistak sortzen dituen arrakalak edo oinarrian dugun zigorraren kultura kuestionatzea baino. Errazena baina, ez da beti justuena.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluak bidali. Gutunak asteazkena 10:00 baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Zer gaitza haurrari yakusten, gue artien erdiaz iten badu?

Urdiaingo festetan urtero bezala, mezu zuzen eta gordin bat ikusi ahal izan dugu. Aurtengoan, helduei zuzendutako mezua izan da. Galdera zorrotz bat bota dute

helduentzako, zergatik erakusten den hurrei euskaraz egiten, gure artean, helduon artean, erderaz egiten badugu. Urdiaingo sanpedrotan beti

dago deabru txiki bat euskaraz bizitzeko zirikatzen gaituena. Orain dela bi urte adibidez, horrela jarraituz gero pankarta guztiak gazteleraz izango zirela mehatxatu zigun.

Heriotza-oharrak

Despeditu berri duzun hurbileko pertsona horren bizitzaren iruzkina argitaratzeko aukera ematen dizu Guaixek.

Heriotza-oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienez aste bateko tartea egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubidea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra bidaltzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatziak helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Kolaboratzaile berriak hitzarmenak sinatzen. SGAn Dinabideren kudeaketa eta araudia zehazten ari dira orain.

Proiektu digitalen ekosistema sortzeko

Dinabidek kolaboratzaile sarea zabaldu du eraldaketa digitalaren esparruan ekintzailtza eta enpresa-garapena bulkatzeko. CEIN, Sodena, ANEL eta Cederna-Garalurrekin hitzarmenak sinatu ditu

IRURTZUN

Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroak (CEIN) eta Nafarroako Garapen Sozietatea (Sodena) ordezkatuz Pilar Irigoien, Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarteko (ANEL) presidente Ignacio Ugalde, Cederna-Garalurreko lehendakari-orde Amaia Ekisoainek eta Sakanako Garapen Agentziako (SGA) David Orozek akordioa sinatu zuten Dinabiden astelehenean. Eraldaketa digitalaren esparruan ekintzailtza eta enpresa-garapena bulkatzeko Dinabidek kolaboratzaile sarea zabaldu du horrela. Izan ere, lau erakundeek Sakanan enpresen eraldaketa digitala sustatzeko ekimenak lagunduko dituzte.

SGAko Energia eta Industria arduraduna den Aintzane Iriberrri Berrostegetiak azaldu zigunez, "Garalurrek Sakanan ekintzailtza sustatzeko zerbitzua eskaintzen du. CEINek hainbat ekintzailtza programa ditu eta

mentoring edo aholkularitza bide-orriak egiten laguntzen du. Azkenik, ANELek ere ekintzailtza sustatzen du, baina kooperatibei begira". Iriberriren arabera, hitzarmenak "bermatuko dute hemen proiektuak garatuko dituzten pertsonengana erakunde horien zerbitzuak iristea".

Iriberrik azaldu zigunez, astelehenekoa "Dinabide proiektuak behar dituen zerbitzuak bermatzeko eta bideratzeko hainbat entitaterekin egiten ari garen akordioen barruan dago". Azaldu duenez, "hasieratik Nafarroako Industria Ingeniarien Elkarrekin Ofizialarekin eta Fundacion Industrial Navarrarekin (FIN) eraldaketa digitala sustatzeko hitzarmena dugu". Sakanako Enpresarien Elkartearekin ere badute hitzarmena sinatuta. SGAKoek kolaboratzaile sarea indartzea espero dute.

Hiru atal

Dinabidek hiru oinarri ditu: prestakuntza, eraldaketa digita-

la sustatzeko enpresei begirako proiektuak eta coworking-a edo lankidetzak. Prestatzen ari diren eraikinak bi zati ditu: laborategia eta lankidetzak espazioa. Iriberrik esan digunez, "coworking espazioan jendeak lan egiteko aukera izanen du. Hemen saiatuko gara digitalizazioaren inguruko ekosistema irekia sortzen".

Ekosistema horrek zer behar izanen zituen aztertu zutenean, "konturatu ginen ekintzailtza sustatzeko aholkularitza oso baliagarria izanen litzatekeela. Norbaitek proiektu-idea gauzatu nahi balu, edo enpresa txiki batek digitalizazioaren esparruan negozio linea berri bat sortu nahi balu, Dinabiden lanera etortzeko aukera luke, baita aholkularitza

**HARREMANETARAKO:
INFO@
SAKANAGARATZEN.
COM E-POSTA EDO
647864239 TELEFONOA**

jasotzeko ere". Hitzartutakoaren arabera, Dinabiden ari direnek kolaboratzaileen laguntza zerbitzuetara "lehetasunezko sarbidea" izanen dute. Eta erakunde kolaboratzaileek azpiegiturak eta teknologia ekipamenduak erabiltzeko aukera izanen dute.

Guztiekin nabarmendu zuten Dinabideren eskualdez gaineko bokazioa eta parte hartze irekiko planteamendua. Horrekin batera, Nafarroako espezializazio adimenduaren estrategian (S3) zehaztutako helburuak gauzatzeko duen interesa azpimarratu zuten. "Aipatzekoa da Eskualde Aktibazio Planaren baitan, Nafarroako Gobernuo Ekonomia Garapenerako Departamentuak emandako bulkada".

Ikasturte berrirako

Dinabideko coworking edo lankidetzak espazioa egokitzeko lanak aurreratuta daude, baina ez guztiz despedituta. Sartu eta ezkerretara dago. Iriberrik azaldu digunez, 16 lanpostu, prestakuntza gela eta bilera gela txiki bat daude. 200 metro karratu hartzen dute guztira. Dinabideren eskuinteko aldean ikerketa eta garapenerako laborategia edo tailerra dago. "Hainbat teknologia lantzeko ekipamendua jarriko dugu. Uste dugu irailerako fabrikazio eransgarriaren oinarritutako teknologia, robotika eta bestelako teknologiako makinak ekarriko ditugula. Beraz, etortzen diren pertsonak edo enpresek teknologia eskuragarri izanen dute. Berrikuntzan oinarritutako coworking-a edo lankidetzak da". Beraz, Dinabiden topo eginen dute hutsetik hasten diren ekintzailtzaileak eta han lanean ari diren enpresetako ordezkariek. "Guretzat hori da interesgarriena. Ez dakigu zer eskaera izanen dugun, baina ez dugu aterik itxi nahi. Beti ere, digitalizazioarekin lotura izan behar du".

Dinabide forma hartzen ari da, baina dagoeneko bi ikastaro izan dira. Joan den astean zibersegurtasunari buruzko tailerrak izan ziren. Iriberrik argitu digunez, tailerretan "enpresek euren egoerari buruzko diagnostia egin zuten. Elkarrekin Digital Eraldaketarako Bulegokoek eman zuten". Bestetik, AIN 4.0 mandoa ikastaroa eskaintzen ari da azaroa bitartean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuta. "Enpresek eraldaketa digitalean sekulako interesa dute".



Turismo bulegoa zabalik. SAKANA.EUS

Turismo bulegoa zabalik Aralarren

Asteleheneetik larunbatera 10:00etatik 18:00etara, eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara

UHARTE ARAKIL

Aralarko santutegi ondoko turismo informazio guneak larunbatean ireki zituen atek. Irailaren 24ra arte handik pasatzen direnei Aralar, Sakana eta Plazaola eremuetako turismo eta natur baliabideen inguruko informazioa emanen zaie. Horretaz arduratuko dira Maite Perurena eta Iosune Diaz.

Aralarko turismo informazio-puntua elkarrekin kudeatzen dute Sakanako Mankomunitateak eta Plazaola turismo partzuegoak. Urtero erakunde bati dagokio turismo informazioaileak kontratatzea eta aurten Mankomunitatearen txanda izan da. Bi erakundeak Aralarko Elkartearekin eta Aralarko santutegiarekin bat batera Aralarren sustatzen diren ekintzetan elkarlanean aritzen dira.

Paki Urbitartek, Sakanako Garapen Agentziako turismo arduradunak argitu digunez, 2018an "guztira 7.408 bisitari pasa ziren, horietatik % 89,6 estatukoak ziren eta % 10,4a atzerrikoak". Bisitarien jatorriaz galdetuta, Urbitartek esan digu Aralar bisitatzen duten gehienak Euskal Autonomi Erkidegokoak, Nafarroakoak, Kataluniakoak eta Madrilgoak direla, eta atzerriarren kasuan Frantziatik etorritakoak.



Lakuntza Kalor groupen eraikuntza. UTZITAKOIA

150.000 euro ikerketa eta garapena proiektuetarako

4 enpresek jasoko dute gobernuaren eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren diru-laguntza

IRURTZUN / LAKUNTZA / ALTSASU

Jarduneko Nafarroako Gobernuak 2019ko Ikerketa eta Garapenerako (I+G) 144 enpresa eta entitateren 133 proiektuetarako 10,8 milioi euro banatu ditu. I+Grako diru hori erdibana atara da foru administratibotik eta Europako 2014-2020 Feder programaren Eskualde Garapenerako Europako Funtsetik. Lagundutako proiektuak aurten eta hurrengo bi urteetan garatuko dituzte enpresek, horregatik, hiru urtetan banatuko da jasotzen dute diru-laguntza.

Sakanako lau enpresa dira laguntzak jasoko dituztenak. Irurtzungo Albaikide SA enpresak enbrioi-transferentzia tekniken bidez protokolo berri bat garatuko du. Haren bidez bero-estresa duten behien ugalkortasuna handitu nahi da, baita erditu ondoren ugalkortasun txikia duten behiena handitu ere.

Lakuntzako Lacunza Kalor Group SAL enpresak pizte automatikoko estufa misto berria garatu nahi du. Egurra eta pellets erregai izanen du, telefono mugikorreko aplikazio bidez urrutiko kontrola du eta autonomia, eraginkortasun eta segurtasun gorena izanen duena. Altsasuko Tratamientos Algoi SL enpresak tamaina handiko kamioiendako motor bloke berriak garatuko ditu. Motor berri horiek bat datozen perdoiak ditu eta barruko azaleko garbiketa gaitasun handia du.

Azkenik, Lakuntzako Aceros Moldeados de Lacunza SA (AML) Aridos Recicladados de Navarra SL enpresarekin batera proiektua garatuko du. Fundizioko moldeak egiteko erabilitako harea-hondakinari balioa emateko proiektua aurkeztu dute bien artean. Guztira 83.094,56 euro jasoko dute biek hurrengo hiru urteetan.

I+G proiekturako diru-laguntzak

Enpresa	Diru-laguntza
• Albaikide	65.702,38
• Lakuntza Kalor Group	28.145,71
• Tratamientos Algoi	17.145,18
• AML	39.252,53
• Guztira	150.245,80

Urteka	2019	2020	2021
• Albaikide	23.047,92	32.851,19	9.803,27
• Lakuntza KG	9.042,65	14.072,86	5.030,2
• Trat. Algoi	6.083,76	8.572,59	2.488,83
• AML	10.954,71	19.626,27	8.671,55



LABekoak salaketa egiten. UTZITAKOIA

Sindikalisten kontrako errepresioaren salaketa

LABeko Sindikatuko ibarreko delegatuek "borroka sindikala" aldarrikatu dute

IRURTZUN

Aldarrikapen hori Irurtzungo Inasa zeneko atean egin dute, "aski ezaguna baita Inasako langileek pairatu zituzten kolpe, irain eta isunak euren lanpostuak defendatzeagatik". Sakanako LABeko delegatuek nabarmendu zuten, "hura ez zen gertakari isolatu bat izan, oraingoan Iruñeko La Sangiovesa eta Azkoiengo Huerta de Peraltan izandako langileen eskubideen aldeko borrokek errepresioan jauzi bat eman dute. Ondorioz, 20.000 euroko isunak eta espetxe zigorrak jaso ditugu. Izan ere, LABeko kide batek 21 hilabeteko kartzela zigorra jaso du eta ondorioz espetxean buka dezake.

Sakanako LABeko delegatuek azaldu dutenez, "zigor horiek ez dute inolako zentzurik, bai La Sangiovesan eta Huertas de Peraltan, lan gatazkak akordioarekin bukatu ziren eta konpondu egin ziren". Sindikatu abertzaleko kideen iritziz, "badirudi, zigor horien helburua borroka sindikala kriminalizatzea izan dela". LABeko kideek gaineratu zuten, "egun bizi dugun prekarietate egoeraren aurrean antolatzea eta borrokatzea da bide bakarra, langile arteko elkartasuna bulkatuz eta beste eredu baten alde eginez".

Sindikatuak lan-istripu hilgarria deitoratu dute

Euskal gehiengo sindikalak Lakber enpresaren Arbizuko lantegiaren parean kontzentrazioa egin zuen

ARBIZU

ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU eta CGT sindikatuak deituta *Prekarietatea hiltzailea, lan istripu gehiagorik ez!* leloa duen kontzentrazioa egin zuten astelehenean. 50 bat pertsona elkar-tu ziren "lan-istripu mortala deitoratu eta haren inguruabarrak berehala argitzea exijitzeko".

Sindikatuetak ordezkariek azaldu zuten, "lan istripu guztiak tamalgarriak diren arren, bereziki kezkatzen gaitu Sakana Kooperatibian eta bere lantegietan azken lau urteetan 3 langile hil direla jakiteak". Enpresaren egoerarekin "oso kezkatuta" dau dela gaineratu zuten: "irimo baino irimoago exijitzen diegu erakunde publiko nahiz enpresako arduradunei gaurko ezbeharraren inguruko guztiak argitzea, prebentzio neurriak hartu ziren ala ez, neurri horiek egokiak ziren ala ez... Gertatutakoaren larritasunak behar diren argibide guztiak ematea eta gardenatasuna bermatzea eskatzen du".

Eledunen iritziz, "prekarietatea, eskubide falta eta prebentzio neurri egokiak ez hartzea dira lan-istripu eta gaixotasunen oinarrian dauden arrazoiak: aldi

baterakotasuna, malgutasuna, azpikontratazioa, lan-eritmo bortitzak, babesgabatasuna, presioak, formakuntza eza..."

Ziurtatu zuten, "egiturazko arazo baten aurrean gaude: kronifikazioa, ezbehar-kopurua eta osasun-kalteak handitu izana. Patronalak, ahalik eta irabazi handienak ahalik eta epe laburrean lortzeko duen gose asegaiztaren, nahiz lan-erreformek eragin duten prekarietate sarearen ondorio zuzena da". Prekarietatea "hedatzen" ari dela eta "beharrezko prebentzio neurriak ez direla hartzen" gaztigatu dute: "gero eta gehiago dira egunero-egunero beraien bizitza arriskuan jartzera behartuta hiltzen diren langileak. Hala, lan-istripuak oinarritzko segurtasun neurriekin ekidin daitezkeela azpimarratu nahi dugu". Konponbidea ere argi dute gehiengo sindikalekoek: "lan eta bizi-baldintza duinak behar ditugu eta lanetik etxera bizirik itzultzeko eskubidea dugu". Hori bermatzeko, sindikalistek langileekin eta kooperatibistekin elkarlanerako prest agertu dira. Euren "prebentzio neurrien eta pertsonen aldeko ekimena da".



"Errudun badira, geu ere"

11/13 sumarioan Fran Balda Arañarendako eta beste 46 euskal herritar auzipetuendako absoltzioa eskatu zuten larunbatean Arbizun. Baita "antolatuta eta auzipetuekin eta euskal errepresaliatuekin solidario izatea" ere. Herrietako festetan mugituko dituzte zapietan "elkartasun mezuak idaztera gonbidatzen zaituztegu". Guztiak irailen 7an Arbizun izanen dira.

Odola emateko deia egin dute, erreserbak igotzeko

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuak uda honetan odol emateak egiteko deia egin du

SAKANA

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuak gizarteari dei egin dio odola ematera joan daitezen uda eta San Ferminetara begira erreserbak igotzeko. Izan ere, epe horretan ohikoa da odol-transfusioen beharrak gora egitea. Hematie kontzentratuak eta plaketa unitateak behar dituzte. Aurrenekoak 42 egunetan iraungitzen dira, atzenak aste bakarrean. "Horregatik, beharrezkoa da odol emateen jario etengabe eta jarraitua izatea eta, ahal den neurrian, odol-emaleen oldeak saihestea, odola ez iraungitzeko".

Odol eta Ehunen bankutik deia azken bi hilabeteetan eman ez duten ohiko odol-emaleei egin diete. Eta oporretan atzerrira joan behar dutenei gaztigatu dietenez, joan aurretik odola eman. "Munduko zenbait tokitara egindako bidaiak aldi baterako odolik ezin ematea dakar eta". Gainera, aurrenekoz eman nahi dutenei ere dei egin diete. Odol-emaleen autobusa herrian denean hara jotzeko edo bestela Iruñeko odol bankura joateko aholkatu diete. Argibide gehiagorako 848 422 500 telefonora hots egin edo Nafarroako Odol-emaleen Elkartearen, Adonaren web orrirra jo.

Marcelo Lasa Zeberio etxera bueltatu zen igandean

Olaberrikoa Lizarrustin erail zuten 1936ko agorriaren 25ean. Francisco Lakuntza Larraza etxarriarraren lekukotasunari esker opatu zuten Lasaren gorpua. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak igandean bueltatu zion hezurdura familiar, Olaberriako udaletxean egindako ekitaldi publiko hunkigarrian. Aretoa lepo zegoela egin zen.



Adingabeak Altsasun izan zireneko argazkia. ARTXIBOA

Adingabe atzerritarrek Iturmendin dute egoitza

Nafarroako Gobernuak bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrera programako erreferentziatzeko tokietako bat Iturmendiko mojen egoitza zenean kokatu du. Egoitzatik atera ondoren tutoretzapeko etxebizitzetara doaz eta halako bi Altsasun daude

ITURMENDI / ALTSASU

Nafarroako Gobernuaren betebeharrak da bakarrik dauden atzerriko adingabeei arreta eta laguntza integrala ematea. Gaztetxo horien etorrera nahikoa aurreikusita gabea izan da, eta udaberriaren ugari iritsi dira Nafarroara. Gobernuak korrika eta presaka ibili da gaztetxoei behin-behineko egoitzetan tokia bilatzen. Horregatik, egon ziren joan den hilean Altsasuko aterpean. Gobernuak dagoeneko herrialdean barna baliabide-sare bat eratu du. Lehen harrerako lau egoitzetako bat Iturmendin dago, Andre Mariaren Mirabeen kongregazioaren Estafeta kaleko 27. zenbakian duen egoitzan.

Hori dela eta, gobernuak, Mankeko, Etxarri Aranazko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Iturmendiko Udaleko ordezkariak bilera egin zuten astelehenean. Haurren eta Familiaren Zuzendariorde Mikel Gurmindo Marinek azaldu digunez, "Iturmendin zurrumurrak saihestu, beldurrak, errealitate faltsuak eta mitoak kentzeko lehen esku azalpena emanen diegu iturmendiarrei gaur, 18:00etan, udaletxean. Jendeak izan dezakeen irudi faltsua argitzeko eta integrazio ona izateko".

Hiru fase

Marinek azaldu digunez, egoitzan 25 adingabe daude. Eta beste 8

Altsasuko tutoretzapeko bi etxebizitzetan. Gehienak adingabe marokorak dira. Gurmindok azaldu digunez, arreta eta laguntza integraleko programak hiru fase ditu. Aurreneko harrera, Iturmendin egiten dena. "Adingabe bakoitzaren diagnosi psikosozial sakona egiten zaie. Aldi berean, prestatu egiten dituzte". Besteak beste gaztelania irakasten diete. "Adingabearen arabera aurreneko fase horretan 45, 60 edo 90 egun egoten dira. Haiekin beti bospasei hezitzaile eta psikologo egoten dira".

Ondoren integrazio fasea dago. Marinek azaldu digunez, "6 hilabete eta 2 urte artekoa da. Bakarrik dauden adingabe atzerri-

tarrak Iturmendiko egoitzatik Sakanako tutoretzapeko etxebizitzetara aterako dira". Haien ondoan hezkuntza lan talde bat egonen da adingabeekin egunero harremana izanen duena eta haiei hezkuntza, prestakuntza, enplegu edo edozein arloetan akonpainamendua egiten diena.

Arreta sistemaren atzeneko fasea autonomiarena da. "21 urtera arte izaten da. Haiek erabaki behar dute bizilekua non kokatu, integratu diren inguruan edo beste nonbait", azaldu digu Marinek. Aisialdian, kirol taldeetan eta halakoetan integrazteko akonpainamendua dute eta bermatutako errentaren bidez etxebizitza, arropa, jatekoa eta esku-dirua bermatuta dute.

Prestakuntza

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek enplegurako prestakuntza jasoko dute garilean eta agorriean. Ilundain fundazioak kale eta bide garbiketarako gutxieneko gaitasunak irakatsiko dizkie. Marinek azaldu digunez, "auzolan modukoa izanen da. Adingabeen integrazioan laguntzen duten herrietan gaztetxoek kale edo sasi garbiketa lanak egiten dituzte, herriei onura emanez. Horretarako, udalek fundazioarekin koordinatu eta zein behar dituzten jakinarazi beharko diote". Helburu horrekin Marin ibarreko hainbat udalekin bildu da gaur, 18:00etan.

Udaren ondoren adingabeek enplegurako prestakuntza programetara joanen dira. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak oinarrizko ezagutzak emateko gaitasun profesionaletan trebatuko ditu adingabeak. "Helburua da eskualdeko lanegietan lan egiteko gaitzea".



"EuskarAbenturara lagunak egitera goaz"

Garila guztia Euskal Herrian barna ibiliko dira 121 gazte EuskarAbentura espedizioan. Haien artean hiru altsasuar daude: Mikel Etxaniz San Roman, Aitor Ovejero Castillo eta Javier Diaz Zelaia

ALTSASU

EuskarAbentura 2019 espedizioa astelehenaz geroztik martxan da. Bigarren edizioan 121 gazte parte-hartzaile daude, zazpi lurraldeetakoak eta diaspora-koak. Gazteek Euskal Herriko Donejakue hiru bideetan barna 798 km egingen dituzte 31 etapatan. Mauletik Vianaraino barnealdeko euskal bidea, Gesaltatik Iruneraino (kontrako norabidean) eta euskal kostaldeko bidea Baionatik Getxoraino. Maulen hasi zuten ibilbidea astelehenean eta Getxon bukatuko dute garilaren 31n. Parte hartzaileen artean hiru altsasuar daude: Mikel Etxaniz San Roman, Aitor Ovejero Castillo eta Javier Diaz Zelaia. Espedizio kideen ibilerak EuskarAbentura mugikorrendako aplikazioaren bidez segitzeko aukera dago. Hura deskargatzeko www.euskarabentura.eus web orrira jo.

Nola izan zenuten EuskarAbenturaren berri?

Mikel. Javierrek eta biok baditugu bi lagun joan den urtean parte hartu zutenak: Alex Santano eta Enaitz Larrion. Esperientzia kontatu ziguten eta inbidiaz gelditu nintzen. Gogo handia nuen. 2019ko parte-hartzaile bat gure klasera etorri



EuskarAbenturan parte hartzen ari den hiruko altsasuarra.

BI EDIZIOETAKO GAZTEEK IGANDEAN ETA HILAREN 24AN ETAPAK ELKARREKIN EGINEN DITUZTE

zen esperientzia kontatzera eta gu animatzera. Eta izena eman nuen.

Javier. Joan den urtean izena eman behar nuen, baina azkenean momentuan hanka-giltza bihurritu eta ezin izan nuen

parte hartu. Eta gero esan nuen: aurtun bai edo bai.

Aitor. Ikastolan gomendatu zidaten Euskarabenturara joatea, esperientzia oso dibertigarria zela esanik. Gogo handia nuen joateko eta han ongi pasatzeko. **Parte hartzeko zein pauso eman behar dira?**

A. Parte hartzeko aukera asko eman zizkiguten. Hemen gauden guztiok bideo bat egitea aukeratu genuela uste dut. Ez dira publiko egiten. Ni Urbasara igo nintzen bideoa grabatzera. Gero Aralarrera joan ginen. Bukatzeko Beriainen grabatu genuen, lagun batekin.

Zer da aurkezpen bideoa?

A. Ez, asmatutako istorio bat kontatu nuen, pixka bat tontoarena egiten. Umorez.

J. Bideoaz aparte motibazio gutun bat idatzi behar zenuen, zergatik joan nahi zenuen eta zer espero zenuen azalduz. Bideoa egiteko nire baratzerara joan nintzen eta nolakoa zen azaldu nuen, zer nuen landatuta. Umore puntua emateko porrua atera nuen lurretik.

M. Nik ez nuen bideorik egin. Hainbat aukera eman zituzten: marrazki bat egitea, bideoa, ida-

tziz istorio bat kontatzea. Azken hori egitea erabaki nuen. Haiek emandako gaiarekin bi orriko istorioa asmatu nuen. Errefuxiatu batzuei buruzko istorioa zen. Motibazio gutunarekin batera entregatu nuen.

Zenbatek eman duten izena?

J. Euskal Herri guztiko 270 inguru gazte, 16 eta 17 urtekoak.

EuskarAbenturan zer espero duzue?
A. Hainbat eskualdetako lagunak egitea. Beraiekin harreman ona sortzea eta, gehien bat, ongi pasatzea. Gustura egon udako hilabete bat.

J. Aprobetxatzea. Aitorrek esan duen bezala, lagun asko egitea. Euskalki asko ezagutzea, eta haiekin hitz egitea.

M. Lagun berriak egitea. Udan ohean edo sofán botata ez gelditzeko aukera ona da. Kirol pixka bat egiteko.

Egunean, gutxi gorabehera, zenbat km? Ohituta al zaudete?

A. 20 bat. Nik lasterka egiten dut.

M. Nik kirola bai, baina ibili ez.

J. Nik futbolekin jokatzeko.

Zer egingen duzue bidean?

M. Uste dut zenbait tokitan geldituko garela eta norbait istorioak kontatzen egonen dela.

J. Ikusiko ditugun gauzak, gehien bat, kultur ondarea izanen da. Haien historia, zergatik dauden azalduko digute.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskaraz hitz egiteko balioko dizue?

A. EuskarAbentura, gehienbat, euskara sustatzeko egiten da. Gazteen artean gehiago hitz egiteko.

Udalekuren batean izan zarete?

M. Txikitik, futbol campu batean. Baina hain handirik ez.

J. 2017an Zarautzen surfa egiten egon nintzen. Derioko neskek zeuden. Jendea ezagutu nuen.

A. Duela bi urte Joseikan Budoko topaketa bat egingenuen Orion.

Hilabete horretan komunikazioarena nola dago?

A. Gomendatu digute telefonia eta kargatzailea eramatea, familiarekin eta lagunekin hitz egin ahal izateko.

J. Afaldu ondoren utziko digute. **Egiten diren harremanak mantentzen dira? Zer diote Alexek eta Enaitzek?**

M. Alex ikasturte honetan Kananan dago. Egia esan, horretaz berarekin ez dut hitz egin. Uste dut Enaitzek ez duela harremanik mantendu.

J. Gasteizko igerilekuan gaude la, familiarekin gu bisitatzeko aukera izanen dute.

Gazteendako Ur Festa Lakuntzako igerilekuan

Gazte lakuntzarren eta arbizuarren topaleku bihurtuko da Lakuntzako igerilekua heldu den asteazkenean, 21:00etatik 23:00etara. Bertan ospatuko da ibarreko bigarren Ur Festa Goxoa. Gozamen programaren baitan antolatutako ekimen horrek "gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberargarri batetik landu nahi du". Gazteen eta haien inguruan dauden helduen artean ere sexualitatearen hainbat arlori buruz hausnarketarako pizgarria izan nahi du programak ere.

Joaten diren 12 urtetatik gorako gazteek, lehenik eta behin, ongi etorri goxoa izanen dute. Igerilekuan gauez bainua hartzeko eta han jokatzeko aritzeko aukera ere eskainiko die ospakizunak. Gainera, hiru eurotan ogitartekoa eta alkoholik gabeko edaria eskuratzeko aukera izanen dute. Guztia borobiltzeko txokolatezko iturria eta musika izanen dira. Gozamen batzordeak eta bi udalek antolatu dute.



Palestinarrak Altsasura etorriko dira.

Palestinarrak Altsasukoak aske aldarrikatzen!

Altsasuko auzia salatu eta preso dauden zazpi altsasuarren askatasuna aldarrikatzeko ostiralero, 20:00etan elkarretaratzea dago. Astero astero kanpoko bisitariak izaten dira. Kataluniarrak askotan. Baina estatu guztikoak izan dira. Gaur Beiruteko Shatilako errefuxiatuen kanpalekutik Basket Beats Borders proiektuko 14 gazte palestinar eta libiar etorriko dira elkartasuna adieraztera.

LAN ESKAINTZA

Wigo Aritza ikastolak 19/20 ikasturterako lanaldi osoan lan egingo duen Atzerriko Hizkuntza, Ingelesa, duen DBHko irakasle baten beharra du.

Lan eskaintza urte baterako izanen da, eszedentzia bat betetzeko.

ESKATZEN DA:

- Iizentziatuta: Atzerriko hizkuntza Ingelesan espezialista edo baliokidea
- CAP edo baliokidea
- EGA edo baliokidea
- Latinezko ezagutza

BALORATUND DA:

- EGI ezagutza
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- IKT ezagutza
- Ikastolen mugimendua ezagutzea

Curriculumak bidaltzeko epea 2019ko uztailaren 30ik uztailaren 01ra izateko da, curriculumak@ingoaarritza.eus era bidali

Zordun handiek Ogasunari zor diotena % 7,4 igo da

Industriako 4 enpresa dira, ostalaritzako 3, eraikuntzako 2 eta merkataritzako 1

SAKAN

Nafarroako Zerga Ogasunak aurtengo zordunen zerrenda argitaratu zuen joan den hilabetean. Zerrenda horretan Ogasunarekin 120.000 eurotik gorako zorrak (etenda edo geroratuta ez daudenak) dituzten pertsonak eta enpresak sartu dituzte. Guztira 624 zergapeko daude. Guztien artean Nafarroako Ogasunari, oro har, 302,6 milioi euro zor zizkioten 2018ko abenduaren 31n. Zerrendan hamar sakandar daude. Hamar horiek zerrendako zordunen % 1,6 dira eta Ogasunari guztira zordun sakandarrek 3.214.637,55 euro zor dizkiote, zor guztiaren % 1. Lau zordun handi sakandarren kasuan zor dutena ez da azken urtean aldatu. Bosten zorra handitu egin da eta batek bere zorra 190.000 eurotan murriztu du.

Industriako zordun handi sakandarren artean hiru enpresa itxita daude eta bestea auzibidean dago. Ostalaritzako hiru zordunetatik bakarrak segitzen du zerbitzua eskaintzen. Eraikuntza sektoreko bi enpresa zordunetako bat krisiarekin itxi zen eta bestea da zorra murriztu duena. Merkataritza arloko enpresak atek zabalik ditu eta bere zorra pixka bat hazi da.



Dorreak guztira 111 metro karratuko azalera erabilgarria izanen du.

Aldamio jantzia Basaluzeko dorrearendako

Telegrafo optikoa hartu zuen dorrea zaharberritzeko lanak urte bukaerarako despeditzea espero dute

ALTSASU

Joan den astetik bargara begiratzen duten altsasuarrek Basaluzeko dorrea, gaztelua, aldamiotz inguratuta dagoela ikusiko dute. Construcciones Leache enpresako langileek jarri zuten metalezko egitura. Haien bidez langileek hormak sendotzeko lanak egingen dituzte, kanpoan eta barruan. Dagoeneko eraikin barruko lurra eta landaretza kendu dute eta zuloa egin dute, beheko solairuan porlan plantxa zabalduko dute eta haren gainean adreilu zaharra jarriko dutelako. Behe solairua eginda, lehenengo eta bigarren solairuetako egitura eta zola haritz-egurrekoak izanen dira. Teilatuen egitura ere egurrezkoa izanen da, laua, baina gainean kareharri lauzak jarriko dituzte. Komunikazio sistema ez dute jarriko.

Sarbideko atea, leihoak eta kontraleihoak haritz egurrezkoak

izanen dira. Beheko solairuko hamabi gezileihoak ez dira itxi-ko, aireztatze egokia bermatzeko. Hala ere, haietan altzairuzko pieza bana eta altzairuzko sare bihurritua jarriko dira, hegaztiak dorrera sar ez daitezten. Tximistortzatza ere jarriko dute.

Historia-Ondarea Zerbitzuko zuzendari Carlos Martinez Alavak azaldu digunez, lanek 226.179,84 euroko aurrekontua dute (BEZ barne) eta urte akaberarako lanak despeditzea espero dute. Argitu dutenez, arkeologo batek lanen jarraipena egingen badu ere, ez dute ezer berezirik opatzea espero. Erabileraz galdetuta, Martinezek argitu digunez, "guk zaharberritzea egingen dugu, baina dorrearen jabea Altsasuko Udala da. Udalarekin hitzarmena egingen dugu, bera dorrearen difusioaz arduratuko da: informazio panelak, bititak edo ibilbideetan sartu".



Egiarretako frontoiak izanen duen itxura. San Migeletarako egina nahi lukete.

Kontzejuak frontoia estaltzeko lanak eman nahi ditu

Frontoiaren berezitasuna izanen da metakrilatozko eskuin-pareta izanen duela.

EGIARRETA

Egiarretako Kontzejuak frontoia estaltzeko lanak emateko deialdia egin du, horrela herritarrek urte guztian erabil dezaketen estalpe bat izateko. Hura egiten interesa duten enpresek euren eskaintzak hilaren 17ko 11:30era arte aurkez ditzakete Arakilgo udaletxean. Lanek 115.672,38 euroko aurrekontua dute (BEZ barne). Lanek 12 astetan despeditu beharko lirake.

Kirol azpiegitura egitarretarra estaltzeko Etxeberriko frontoiaren eredia hartu dute. Frontoiaren 10 metroko altuera errespetatuz behera egiten duen teilatua eta kontra-kantxan 5 metro izanen ditu. Teilatuari laminatutako egurrezko egitura batek eutsiko dio. Salbuespen bakarra kontra-kantxaren ezkerreko aldean teilatuari eusteko egingen den porlanezko zutabe borobila izanen da. Kontra-kantxa guztia

ez da itxita egonen, eta horrela ibilgailu handiek han buelta emateko aukera izanen dute. Teilatua sandwich moduko metalezko txapa gorri iluna izanen da.

Egiarretako frontoiaren bereizgarrietako bat izanen da ezker pareta izan beharrean eskuin pareta izanen duela. Gainera, aldameneko berdegunera atera ahal izateko frontisaren eta eskuin paretaren artean metro inguruko tartea izanen da. Beheko partean porlanezko 50 cm altu eta 85 cm zabal izanen duen banku bat egingen da. Oinarri horren gainean metakrilatozko plakak jarriko dira, 2,5 metroko altuerara arte. Handik teilatuta arte polikarbonatoko itxitura izanen da. Horrela, frontoia haizetik eta euritik babesten da, baina argia pasatzen utzi ere, eta frontoitik Arakil ibarra ikusteko aukera emanen du.

ALTSASU / 948 562 205 / 673 821 345 / Txerria Aldapa S/N

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

ALTSASU
678 323 403
• Iruia Iribidea, 48
948 468 026
• Zamalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Joan Kalea, 50
948 562 185
• Otañiko Kristo deua, 19

AMAYAN ez dugu soilik gure itxura aldatu, Horretaz gain, zurekin batera gure etorkizunean lan egiten ari gara.

Zerbitzua eta kalitatea hobetzea dugu helburu. Pribanaka aldaketa horiek sumatzen hasiko zara.

OLAIZTI
948 468 755
• Orreaga kalea, 1

ETXARRI-ARANATZ
948 461 660
• Kale Nagusia, 15

ARAIA
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3

VITORIA-GASTEIZ
945 148 368
• Arriagako Atea, 12



LIZARRAGABENGOA



URDIAIN



ALTSASU

Paradisutik gertu


San Pedoren izenean hainbat herritan festak ospatu dituzte: Arruazun, Lizarragabengoan eta Urdiainen. Altsasun erromeria ospatu zuten larunbatean. Auzateak, ardoa eta dantzak izan dira protagonistak, baita beroa ere



URDIAIN



ARRUAZU



ARRUAZU



URDIAIN



LIZARRAGABENGOA



ARRUAZU



ALTSASU



URDIAIN



ARRUAZU



ALTSASU

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 5

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ITURMENDI Bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrera sistemari buruzko argibideak.
18:00etan

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.
12:00ean, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 10

ALTSASU Udako gazte agenda. Zaldi ibilaldia.
16:00etatik 19:00etara, errotan.

LAKUNTZA Gozamenez Ur festa goxoa: ongi etorri goxoa, bainua eta ur jokoak. 12 urtetik gorako Arbizuko eta Lakuntzako gazteentzako.
21:00etatik 01:00etara, igerilekuan.



UTZITAKOA

IRURTZUN Fleury Merogisen preso dagoen Itziar Morenoren margolanen erakusketa.
Ekainaren 16tik uztailaren 30era, Pikuxar euskal txokoan.

Olaztiko festek badituzte kartel iragarleak

OLATZAGUTIA

Uztailaren 25ean hasiko dira Santa Ana festak Olaztin, eta dagoeneko prestaketak hasi dira. Hortaz, festak iragarriko dituzten kartel lehiaketaren irabazleak jakinarazi dituzte. Hiru kategoriaz zeuden: 11 urtera artekoa, 12 eta 14 urte bitartekoa eta 15 urtetatik gorakoa.

Olaztiko festak iragarriko dituzten kartelen egileak, beraz, hauek dira: Naroa Otxoarrarte San Gilek 11 urtera arteko kategorian irabazi du lehiaketa, 12 eta 14 urte bitartekoan Eder Arrizabalaga Otxoarrateren kartelak irabazi du eta kategorian nagusian Laura Imaz Gomezek egindako lana gailendu da. 50, 100 eta 150 euroko saria jasoko dute, hurrenez hurren.

Azken egunak Altsasun kartelak aurkezteko

ALTSASU


Altsasuko Udaleko Kultura zerbitzuak festak iragartzeko kartel lehiaketa jarri zuen martxan eta datorren ostiralean, uztailaren 12an, amaituko da lanak entregatzeko epea. Proposamenetan, derrigorrez, testua agertu behar da. Lanak plika sistemarekin entregatu behar dira Iortia kultur gunean. Hortaz, izenburu bat jarri behar zaio, eta gutun-azal baten barruan egilearen datu pertsonalak idatzi. Informazio guztia: altsasu.net web gunean dago.

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketa eginen dute Altsasuko festetako aurreko astean, eta irabazlea egitarauaren azala izanen da. Kontrazala haur kategoriaren kartel irabazlea izanen da. Garagarriaren 12an amaitu zen haur kategorian lanak entregatzeko epea.




EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 5




Eguna hego haizearekin esnatuko da eta bero handia egingo du egun guztian zehar, baina iluntzen joan ahala, ipar haizea sartuko da eta freskatzera egingo du.

Larunbata, 6




Ipar haizearekin jarraituko dugu, horregatik, tenperaturak lehunagoak izango dira, nahiz eta hezetasanaren ondorioz, bero sentsazioa handiagoa izan.

Igandea, 7



Tenperaturak epelagoak izango dira egun guztian zehar. Ipar haizeak hodei dexente ekar ditzake gurera, baina ez da euri arriskurik egongo.

Astelehena, 8



Goibel esnatuko da astearen lehen eguna. Hodeitsu egongo da eta noizbehinka zaparrada bat bota lezake. Hala ere, ez du euria etengabe egingo.

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Raul Andres Cuesta

Bere emaztea; Ainhoa Ganuza. Gurasoak; Juan eta Begoña (†).
Ezkon gurasoak; Luis (†) eta Axun. Anai arrebak; Ruth eta Carmelo eta David
eta Susana. Ezkon anai-arrebak; Oihana eta Iñaki.
Ilobak; Daira, Hugo, Irati, Aingeru eta Maddi.

Eskerrik asko momentu latz hauetan gure ondoan egon zareten guztioi.

Etxarri Aranatz

IRAGARKI SAILKATUAK

HARREMANAK

Sakanatik Iruñara gozero lanera joateko kotxe bila dabilen gazte bat naiz. Kepa 648 760 567

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Etxarri Aranatzko musika eskolako bibolin irakaslea kontratatzeko deialdia: Curriculum-a info@etxarriaranatz.eus helbidera bidali behar dute interesatuak. Epea uztailaren 5ean, 14:00etan bukatzen da.

LEHIAKETAK

Egile berrientzako Iruñeko Udalaren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa: parte hartu ahalko dute nafar egileak edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek. Poesia, Narrazioa eta Bertso-papera modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago www.iruñakulturada.eus helbidean.

Maravillasko auzipetuaren aldeko zozketako zenbaki sarituak: 77 zbkia Kosmetika naturala (desodorante, xaboi) eta Embajada taldearen kamixeta. 123 zbkia Kosmetika naturala (aurpegirako krema, xaboi). 180 zbkia Kosmetika naturala (B. Tigre, xaboi). 240 zbkia Tattoo txartela. 311 zbkia Kosmetika naturala (Kalendula+xaboi). 455 zbkia Sasi parxeax+patxaran. 481 zbkia Nafarroa 1512 taldearen

kamixeta eta Cda. 515 zbkia Alerta Gorria taldearen kamixeta eta CD. 594 zbkia Arbizuko Gazte Asanbladaren kamixeta eta patxarana. 663 zbkia Sasi kamixeta eta patxarana. 702 zbkia Larruzko kartera eta Lakuntzako Biltokiko kamixeta. 712 zbkia Nafarroa 1512 taldearen diskoa eta Osparen kamixeta. 820 zbkia Osparen kamixeta eta larruzko kartera. 40 zbkia Lakuntzako Biltokiko kamixeta eta osparena. 911 zbkia Kosmetika naturala

Olaztiko haurren festa zapiak: azken urtean jaiotako haurrei Santa Ana festetara ongi etorria emateko udalak zapi oparitutako die. Zapi jaso nahi duten gurasoek udaletxean eman dezakete izena uztailaren 17ra arte.

Olaztiko goitibeherak 2019: uztailak 27, larunbata, 17:00etan. Izena eman gazietxean eta hasi zurea prestatzen!!

Olaztiko jaietan zenezuzkoa eramateko deialdia: betebeharrak adinez nagusia izan eta Santa Anetan 4 egunez eta San Migeletan 3 egunez eramateko ardura bere gain hartzea. Egunez 26 euro ordainduko dira. Izena emateko epea uztailaren 11n, 14:00etan, bukatuko da.

Lakuntzako festetako zapien banaketa: 2018. urtean jaiotako eta Lakuntzaren erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapi jaso nahi badute, udaletxean izena eman beharko dute uztailaren 19a baino lehen.

11/12 SUMARIOA: 47 auzipetu hiru bat hilabetez Madril en epaituko dituzte. 337.462 euroko gastuak izan dituzte. Horri aurre egiteko diru ekarpenak eskatu dituzte. Horiek Laboral Kutxaren ES82 3035 0057 9205 7005 9033 kontu korrantean sar daitezke.

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzea elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbazuarraren erroldan parte hartzea gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabaraino mendira lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideak-dokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



Arkaitz Berasategi Goikoetxea

I. urteurrena

Beti egongo zara gure bihotzetan

Maite zaitugu

Zure familia

JAIOTZAK

- **Fidae Mbitil**, ekainaren 26an Irurtzun
- **Laila Cambero Viñaras**, ekainaren 26an Altsasun
- **Izan Fernandez de Garaialde Lazkano Dieguez**, ekainaren 27an Altsasun
- **Amair Lopez Unzurrunzaga**, ekainaren 29an Olaztin

HERIOTZAK

- **Raul Andres Cuesta**, ekainaren 25ean Etxarri Aranatz
- **Jose Angel Alvarez Fernandez**, uztailaren 2an Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN
JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN
JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

✉ @Grupolrache

f Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Sanferminetako torneoko trofeoa nahi dute guztiek

PILOTA Igandean hasiko da Sanferminetako Binakako Torneo. Ezkurdiak Zabaletarekin osatuko du bikoia eta Martijak Irribarriarekin. Aipatutakoez gain, Olaizola II.a-Albisu daude ere favoritoen artean

Larunbatean festak eztanda egingo du Iruñean eta horrekin batera udako torneo prestigiotsuenetakoa abiatuko da: Sanferminetako Binakako Torneo. Igandean, San Fermin egunean hasiko den torneoan guztira 6 bikote hartuko dute parte, 3 enpresa bakoitzeko.

A multzoko bikoteak Olaizola II.a-Albisu, Bengoetxea VI.a-Imaz eta Irribarria-Martija dira eta B multzoko bikoteak Altuna III.a-Ladis Galarza, Ezkurdi-Zabaleta eta Urrutikoetxea-Mariekurrena II.a. Sanferminetako pilota torneoa izugarri erakartzen du eta Labrit egunero egongo da beteta, goraino. Sarrera bakan batzuk geratzen omen dira saltzeko.

Ezkurdia eta Zabaleta elkarrekin aritzeagatik oso pozik

Joseba Ezkurdiak eta Beñat Rezustak irabazi zuten iaz Sanferminetako Binakakoa. Rezusta ez da aurten ariko, hori da aurten go sorpresa bat, eta arbizuarrek aurten Jose Zabaletarekin osatuko du bikoia. "Berarekin irabazi nuen lehen txapela, Binakakoa, lagun handia dut eta oso pozik nago berarekin bikotea osatuko dudalako. Ea txapelketa ona egiten dugun" azaldu zuen Ezkurdiak aurreko astean. Lau



Sanferminetako Torneoko aurkezpena ekainaren 17an egin zuten. ASPE

t'erdiko finalerako sailkatu ez izanaren arantza atera nahiko du Joseba Ezkurdiak Binakakoan, eta aurreko urteko torneoko saria berriro, kasu honetan Zabaletarekin.

Etxarrengoak iaz Irribarriarekin osatu zuen bikoia, finalerako sailkatu ziren eta galdu egin zuten Ezkurdiaren eta Rezustaren kontra. "Iaz Irribarriarekin ibaiertzean geratu ginen eta ea aurten, Joseba lagun handiarekin, irabaztea lortzen dugun" esan zuen arakildarrak torneoko aurkezpenean.

Irribarriak eta Martijak "torneorik politena" irabazi nahiko lukete

Ezkurdia eta Zabaletaren bikoia da sanferminetako Binakako Torneoko indartsuenetako bat, baina besteak ez dira gutxiago. Iazko txapeldunorde Irribarriarekin osatuko du bikoia Julen Martijak. Etxeberrikoari ere ilusio handia egingo lioke sanferminetan gailentzeak, Labriteko giro paregabean. Irribarriak aurkezpenean esan zuen Iruñeko "torneorik politena" dela, eta jokoan dagoen trofeoa etxera eramane nahiko luke Aramakoa.

Aipatu bi bikoez gain, katedrak Olaizola II.aren eta Albisuren bikoia kokatzen du ere favoritoen artean.

Partidak

A multzoan, Irribarria eta Martija igandean, uztailaren 7an, sartuko dira lehian. Bengoetxea VI.a eta Imaz izango dituzte aurkari (17:00, Labrit, ETB1). Galtzaileek Olaizola II.aren eta Albisuren kontra jokatuko dute asteartean, eta irabazleek aurkari berberak izango dituzte ostegunean. Ligaxkako irabazlea uztailaren 14an jokatuko den final handirako saiatuko da.

B multzoan, Ezkurdiak eta Zabaletak astelehenean, uztailaren 8an ekingo diote torneoari, Urrutikoetxearen eta Mariezkurrena II.aren kontra jokatuz (22:15, Labrit). Galtzaileek Altuna III.a eta Ladis Galarza izango dituzte aurkari asteazkenean, eta irabazleek aurkari berberaren kontra jokatuko dute ostiralean. Ligaxkako onena finalerako sailkatuko da.

Marco Real upategien erronka

Uztailaren 13an, larunbatearekin, Marco Real upategien erronka jokatuko da (18:00, Labrit, ETB1). Lau t'erdian Laso P. Etxeberriaren kontra lehiatuko da; binaka Jakak eta Rezustak Baikok oraindik zehaztu ez duen bikoia izango du aurkari; eta buruz buruan Zabala da Aspeko ordezkaria eta Baikok oraindik ez du berea aukeratu.

Joanes Bakaikoa jaialdia zabaltzen

Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra sanferminetako jaialdia zabaltzen ariko da. Uztailaren 9ko eta 12ko jaialdietako irekie-

Sakandarren arteko finalik ez lau t'erdian

Uztailaren 7an jokatuko den Sanferminetako lau t'erdiko final handian ez da pilotari sakandarrik egongo. Askok Joseba Ezkurdiaren eta Joanes Bakaikoaren arteko finalarekin egiten zuten amets, baina ametsa, kasu honetan, ez da errealitate bilakatu, bi pilotariak finalerdietan erori zirelako.

Finalerdietan, Ezkurdiak Altuna III.a izan zuen aurkari Sopelan. Emozio handiko partida izan zen, biak bikain aritu zirelako eta bataak zein besteak aurreratzea eta tartea hartzea lortu zutelako. Sekulako beroa zegoela, Altuna 8 eta 17 aurreratu zen, baina Ezkurdiak esfortzu handia egin zuen eta 19 eta 20 hurbiltzea lortu zuen, baina saka galdu eta Altunaren aldera erori ziren hurrengo bi tantoak (19 eta 22).

Joanes Bakaikoa eta Iñaki Artolak jokatu zuten beste finalerdia Barañainen, beroagatik labea zirudien frontoian. Ongi hasi zen etxarriarra, 6 eta 8ko alde ere izan zuen alde, Artolak zortzira berdintzea lortu zuen eta hortik aurrera hasi zen Bakaikoaren sufrikarioa, gipuzkoarrak ez baitzion apenas aukerarik eman. Azkenean, 22 eta 9 irabazi zuen Artolak.

Nafarroako selekzioa, Espainiako Eskola Adineko txapelduna

PILOTA Nafarroako selekzioarekin aritu dira Udane Vergara, Xabi Lakuntza eta Azpiroz

Nafarroako Euskal Pilotako Selekzioa Valladoliden izan zen asteburuan, Espainiako Eskola Adineko Txapelketan parte hartzen. Binakako haurren mailako finalean, Xabi Lakuntza tarteko, Nafarroak 2 joko eta 0 irabazi

zion Errioxari. Kadeteen mailako emakumezkoen binakakoan, Udane Vergara tarteko, Nafarroak Katalunia hartu zuen mendean, eta kadeteen binakakoan, Nafarroak, Azpiroz tarteko, Errioxaren kontra gailendu zen.

Udane Vergara Emakume Master Cup San Fermin Torneon

Asteburuan Emakume Master Cup San Fermin Torneoko finalerdiak jokatuko dira Lizarran. 18 urtez azpiko finalerdietan, Udane Vergara altsasuarrek Garazi Lasarekin osatuko du bikotea, Eider Salbide eta Olatz Ruiz de Larramendiren kontra jokatuko diren finalak jokatuko sailkatuko dira (ETB1).



Nafarroako selekzioa, Espainiako Eskola Adineko txapelduna. NAFARROAKO PILOTA FED.

PALA Irati Igoa Sanferminetako Pala Txapelketan

Labrit pilotalekuan emakume pilotari eta palisten presentzia geroz eta handiagoa da. Horrela, emakumezkoen pala txapelketa eta gizezkoen pilota txapelketa hartuko ditu Labrit pilotalekuak, Iruñeko Peñen Federazioak hainbat entitaterekin laguntzarekin antolatutakoak.

Irati Igoa Sesma palista etxarriarrak Saraguetarekin osatuko du bikoa, eta uztailaren 10ean, asteazkenarekin, Iruñeko peñen txapelketako finalerdiak jokatu dituzte Labriten, 17:30ean. Espinal eta Ardanazen kontra. Igoak aitortu digunez, "bi aste daramatzat pala hartu gabe eta aste honetan gogor ariko naiz sanferminetako pala partida prestatzen. Partida gogorra izango da, baina aukerak egon, badaude". Eta 19:00etan, gizezkoen pilota txapelketan, Xalak eta Azanzak Ongay eta Martinezen kontra jokatu dute.

Uztailaren 11n, finalak jokatu dira. Emakumezkoen paleta gomako finalean, Murillok eta Azanzak bezperako partidaren irabazitako bikoa izango dute zain. Ea Irati Igoak bertan egoterik duen. Gizezkoen pilota txapelketan, Olazabalek eta Pascualek bezperako irabazleen kontra jokatu dute. Finalean sarreretan jasotzen den dirua Hiru Hamabi elkarteari emango zaio.

Ioseba Fernandezek bere 5. Mundialei ekingo die

IRRISTAKETA Uztailaren 6tik 14ra Bartzelonan jokatu diren World Roller Games edo Mundialetan ariko da lau aldiz munduko txapelketa den iturmendiarrak. Nahiz eta ekainaren 1ean abduktorea hautsi, "irabaztera" aterako dela dio

Irristalariak Bartzelonara begira daude. Bihar, uztailaren 6an, hasiko da World Roller Games edo Munduko Irristaketa Txapelketa eta uztailaren 14ra bitartean jokatu da. Eta bertan ariko da Ioseba Fernandez. Lau aldiz munduko txapelketa izan den iturmendiarrak bere bosgarren Mundialei ekingo die, eta nahiz eta lesio batetik osatzen egon, "irabaztera" aterako dela oso argi du.

Abduktoreko zuntzak apurtu zituen ekainaren 1ean

Iturmendiarrak aspaldi errotu-lagailuz gorritz markatuak ditu Bartzelonako World Roller Games jokoak. "Lau urte daramatzat Munduko Irristaketa Txapelketa honetan pentsatzen. Badakit ez naizela nire onenean heltzen eta ezin izan dudala behar bezala entrenatu. Ez dakit abduktoreak behar bezala erantzun duen, baina saiatuko naiz" azaldu du komunikabide batean.



Txinan jokatuak aurreko Mundialetan 100 metroko urrea lortu zuenekoak. UTZITAKOIA

"EZ DUT HOLAKO ESFORTZU HANDIRIK EGIN SOILIK PATINATZERA JOATEKO: IRABAZTERA NOA"

Ekainaren 1ean lesionatu zen Ioseba Fernandez, Iruñean jokatuak Espainiako Zirkuituko Txapelketan, 100 metroko esprint proban parte hartzen ari zela, azken metroetan. Proba irabaztea lortu zuen, baina abduktoreko

zuntzak apurtu zituen. Tarte labur honetan, eta ia sinestezina bada ere, hausturatik errekupe- ratzea lortu du lan izugarria egin eta gero. Gogor entrenatzeaz aparte, fisioterapia saioak eta Indiba teknologiarekin saio bereziak egin ditu, errehabilitazio prozesu gogor eta mingarrian.

Etzi 200 metroko esprinta jokoan

Ioseba Fernandezek Bartzelonan bere kirol ibilbidea borobildu nahiko luke, baina ez daki abduktoreak nola erantzun duen. Horregatik, igandean, uztailaren 7an jokatu den 200 metroko esprint lasterketan "% 200era" aritu nahi du, lesioari begira ez delako horren proba agresiboa. Egun horretan bertan gorputzak erantzuten dionaren arabera, uztailaren 13an jokatu den zirkuituko 100 metroko esprintean aritzea erabakiko du.

Goi mailako kirolarietako txapelketa aurreko azken hilabetea xehetasunak lantzeko erabiltzen dute, baina berak ezin izan du. Hala ere, esperientziak lagunduko diola uste du. "Badakit zorarena dela, jendeak esaten dit Mundialetara lehitzera eta ongi pasatzera joateko. Gehienek pentsatzen dute ia 5 asteetan patinak ia jantzi gabe egon eta gero ezinezkoa izango dudala irabaztea, baina nik ez dut esfortzu eta lan handi hori egin soilik Bartzelonara patinatzea joateko. Bartzelonara irabaztera noa" nabarmendu du.

Sanferminetako herri kirol txapelketetan ariko dira gureak

HERRI KIROLAK Iñigo Aritza, Andra Mari, Mikel Lasarte eta Jon Irañeta ariko dira herri kirol txapelketetan

Sanferminetan berezko protagonismoa izaten dute herri kirolek. Eguerdio bere tokia dute Foru plazan. Iruñeko Udalak Nafarroako Herri Kirol Federazioaren laguntzarekin antolatuta, uztailaren 8tik, astelehenetik, uztailaren 14ra bitartean, San Fermin Herri Kirol Jaialdiak jokatu dira Foruen Plazan, 12:00etatik aurrera. Makina bat txapelketa jokatu dira, eta horietako zenbaitetan herri kirolari sakandarrak ariko dira lanean. Herri kirol zale ugari hurbilduko da haiek animatzera.

Mikel Lasarte XXI. San Fermin Motozerra Txapelketan

Asteartean, uztailaren 9ko herri kirol jaialdiaren barruan, XXI. San Fermin Motozerra Txapelketa jokatu da. Bertan lehiatuko da Sakanako Harrijasotze Eskolako zuzendari Mikel Lasarte, Arostegiko Peio Kañamaren eta Azkoiengo Juan Asinen kontra. 30 minutuko bi txanda izango dituzte, eta txanda bakoitzean irudi bat egin beharko dute. Epai mahaiaren iritziz irudi onena egiten duena izango da irabazlea.



Iñigo Aritzakoak trontzan.

Andra Mari eta Iñigo Aritzakoak Trontza Txapelketan

Uztailaren 10ean, asteazkenean, Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatu da. Sei bikote lehiatuko dira, horietatik hiru sakandarrak: Iñigo Aritza

ikastolako Inar Olabide eta Adur Irigoien, eta Andra Mari ikastolako Pello Altzelai-Oinatz Carreño eta Urtzi Galartza-Adur Lizarraga. Haiekin batera Iraitz Iturralde eta Jon Irigoien (Basaburua-Baztan), Manex Saralegi eta Oier Goñi (Araxes) eta Leire Olano eta Eneko Rekalde (Araxes) ariko dira.

Etzanda jarritako metroko enborrari 10 epai edo mozte egin behar dizkiote eta bikote irabazlea izango da Nafarroako kadeteen mailako txapelketa. Orain arte, Nafarroako Kirol Jolasetan maila ikusgarria eman dute sakandarrerik eta espero dezagun sanferminetan ere hala izatea.

Bukatzeke, kimuen mailako herri kirol proba konbinatuaren erakustaldia egingo dute Andra Mari ikastolak, Berriozarrek, Araxesek eta Igantzik.

Jon Irañeta Nafarroako Harrijasotze Txapelketan

Uztailaren 13an, larunbatarekin, Nafarroako Harrijasotze Txapelketa jokatu da eguerditik aurrera. Lau harrijasotzailek hartuko dute parte, tartean Mikel Lasarteren aginduetara Sakanako Harrijasotze Eskolan trebatzen den Jon Irañeta irurtzundarra. Josetxo Urrutia leitzarra, Albaro Zugarrondo iruindarra eta Xabier Ariztegi "Santxin" etxalartarra izango ditu kontrario. Hiru harririkin -125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola- bi minutuko txandak egin beharko dituzte, eta jasoaldi gehien egiten dituen harrijasotzailea Nafarroako txapelketa izango da.

Egun horretan erakustaldia egingo du Mikel Lasartek, motozerrarekin irudiak.

Triku Trail: beroa, errekorra eta omenaldia

MENDI LASTERKETAK Iñaki Olanok eta Oihana Kortazarrek irabazi zuten Triku Traila, eta azken honek emakumezkoen errekorra 5 minututan hobetu zuen. Aurreko astean lan istripuan hildako Raul Andres Cuesta korrikalaria omendu zuen antolakuntzak

Triku Trail mendi lasterketa ordu bat aurreratu izanarekin antolakuntzak guztiz asmatu zuela, hori aipatu zuten Etxarriko mendi lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. Bero handia iragartzen zuten eta 09:30ean atera beharrean, 08:30ean abiatu ziren aritu ziren 244 korrikalariak eta likido-hornidura gehiago izan zituzten. Horrela, ez zutela gehiegizko berorik pasatu nabarmendu zuten.

Aurretik, 21 km eta 1.400 metroko desnibel positiboa zuen ibilbide zoragarria zuten aurretik korrikalariak. Etxarriko kanpinetik abiatuta, Maitzegurrera jo zuten lasterkariak; Aunzetetik aurrera egin; Axioeren putzuraino iritsi; eta Lizarrustira heldu. Ondoren, Txaradigorri trikuharrira igo ziren, probako eremurik gogorrena, akaso; Hirumugeta gaina zapatu zuten; Otxentara jaitsi; eta Fagamenti igo. Eta Haritz zaharren ibilbideetik Etxarriko kanpineko helmugara iritsi ziren. Proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskal Mendi Federazioko Rankingerako puntuagarria zen.

Olanok "izugarri" disfrutatu zuela nabarmendu zuen

Etxarriko kanpineko helmugara iritsi zen lehena Iñaki Olano izan zen. 30 urteko Altzoko korrikalariak nabarmendu zuen "izugarri" disfrutatu zuela. "Sekulako lasterketa da, bai ibilbidearen aldetik eta baita antolakuntzaren aldetik ere. Ordua aurreratzea primerako ideia izan da, ez baitut beroarengatik sufritu" azaldu zuen. Lasterketari begira, Olanok aipatu zuen boskote bat batera aritu zela Lizarrustiraino, eta handik aurrera, maldan gora, abiadura azkartu zuela eta tartea atera ziela gainontzekoei. Horrela, bakar bakarrik iritsi zen helmugara (1:47:37). 2 minutu pasako aldea atera zion Xabat Man-



Guztira 244 korrikalari hartu zuten irteera Triku Trailean. SAGRI MAULEON



Ordu bat aurreratu zuten proba, tenperatura altuak ekiditeko.

zisor azpeitiarrari (1:49:42) eta hiru pasatxokoa aurreko astean Tritoiengan bigarrena izan zen Xabi Vegas aguraindarrari (1:50:46).

Kortazarrek 5 minututan hobetu zuen errekorra

Emakumezkoetan Oihana Kortazar ikusgarri aritu zen eta aurreko urtean Oihana Azkorbebeitiak ezarritako errekorra bost minututan apurtu zuen (1:57:04). Oso pozik zegoen Elgetakoa. "Presiorik ez dagoenean apurtzen dira errekorrak" nabarmendu zuen. Hemendik bi

astera Munduko Kopako proba batean arituko da, eta Triku Traila "luxuzko entrenamendua" izan zela gaineratu zuen.

Maiza eta Ramirez de Alda, lehen sakandarrak

Joxeja Maiza etxarriarra 19.a izan zen sailkapen absolutuan, lasterketako lehen sakandarra eta lehen herritarra (1:59:16). Ander Unzurrunzaga Iurrebaso etxarriarra bigarren sakandarra eta probako lehen beteranoa izan zen, helmugan 21.a sartu eta gero (2:01:23). Emakumezkoetan, Haizea Ramirez de Alda altsasuarra

Sakandarrak

Gizonak

1. Iñaki Olano (Altzo)	1:47:37
19. Joxeja Maiza (Etx)	1:59:16
21. Ander Unzurrunzaga Iurrebaso (Etx)	2:01:23
42. Fran Araña (Arb)	2:14:50
49. Ander Unzurrunzaga Ganboa (Etx)	2:16:35
54. Joseba Iza (Arb)	2:18:41
69. Unai Razkin (Iruet)	2:22:39
79. Ibai Arrese (Etx)	2:24:42
107. Xabier Urrestarazu (Etx)	2:32:15
109. Iñaki Lacalle (Olaz)	2:32:37
121. Alberto Mtnz. de Lagran (Etx)	2:37:34
127. Jon Otxoa (Etx)	2:40:01
132. Raul Andres Cuesta (Etx)	2:42:28
139. Araitz Jaka (Etx)	2:43:51
150. F. Zornoza (Olaz)	2:46:12
151. Aitor Salinas (Etx)	2:47:15
154. Jon Garasa (Olaz)	2:47:48
166. Iñaki Agirre (Etx)	2:53:29

Emakumeak

15. Oihana Kortazar	1:57:04
70. Haizea Ramirez de Alda (Alts)	2:22:45
125. Maria Goikoetxea (Etx)	2:38:58
145. Erkuden S. Martin (Etx)	2:44:48
152. Joana Senar (Etx)	2:47:17

izan zen lehen sakandarra, helmugan 70.a eta emakumezkoetan 5.a (2:22:45). Maria Goikoetxea lehen etxarriarra izan zen, helmugan 125.a eta emakumezkoetan 10.a (2:38:58).

Proba nagusia abiatu eta ordu laurdenera, txikienek Triku Txiki proba ez lehiakorren hartu zuten parte. 80 neska-mutiko inguru aritu ziren. Bukaeran korrikalari guztiek auzatea eta opari poltsa zituzten zain. Sari ematean 1.200 euro banatu zituen antolakuntzak, garaikur, txapela eta opariekin batera.

Omenaldi hunkigarria

Lasterketa hasi baino lehen, omenaldi xume baina hunkigarria egin zitzaion aste honetan lan istripuan zendutako Raul Andres Cuestari. 35 urteko korrikalaria gasteiztarra zen, baina Etxarri Aranatzera zegoen ezkondata. Triku Trailen aritzekoa zen, eta bere aldeko aurreraketa dantzatu eta gero, lore sorta eta txalo zaparrada beroa jaso zituen haren alargunak. Haren dortsala lagunek eraman zuten. Eta aipatzekoa da ere lehenengo dortsala esklerosi anitza duen Asier de la Iglesiak eman zuela.

Beñat Katarain bosgarrena Espainiako Kopan

MENDI LASTERKETAK

Greziako Olympus Maratoian 50.a izan zen eta atseden hartuko du

San Juan bezperan jokotutako Zumaiako Flysch Trail txapelketak erabaki zuen Espainiako Mendi Lasterketen Kopa. Euskal mendi lasterkariak selekzioak sekulako maila eman du. Tartean, Oier Ariznabarretak Espainiako Kopa irabazi du eta Espainiako txapeladuna izan zen Otañesen, eta Beñat Katarain lakuntzarra bosgarrena sailkatu zen. Emaitza horrekin "oso gustura" dagoela nabarmendu du. "Maila handia egon da lasterketa guztietan eta hemen inork ez du ezer oparitzen" gaineratu du. Bere helburu nagusia lehen hamargarren artean sailkatzea zen, eta helburua bete du "Ez nuen gehiago espero. Jada lehen lasterketan, nire lekua zein zen konturatu nintzen" nabarmendu du.

Greziako Olympus Marathonen 50.a sailkatu zen lakuntzarra

Asteburuan Munduko Koparako baliagarria den Greziako Olympus Marathon mendi maratoia jokatu zen, Olympus mendian jokatzen den 44 km-ko eta 3.200 metroko desnibel positiboko proba gogorra. Bertan aritu ziren 700 korrikalarien artean euskal selekzioak zeuden, Beñat Katarain tartean. Zaid Ait Malek izan zen txapeldun handia (04:31:47). Emakumezkoetan Ragna Debats gailendu zen, errekorra apurtuz (05:15:54). Beñat 50.a sailkatu zen (05:47:43) eta bere taldekide Julen Martinez de Estibariz eta Mayi Mujika bosgarrenak sailkatu ziren.

Ekainaren 2tik hona, 3 mendi maratoi egin ditu Beñat Katarainek: Zegama-Aizkorri, Tolosako 3 Tontorrak eta Olympus Marathon. "Gorputzak bale esan dit, Greziakoan ez nintzen ongi ibili, ez nengoen ondo. Bukatzea ez da gutxi, baina ongi banengo lehen 10 postuen artean sartzeko aukerak nituen" adierazi du. Orain atseden hartuko du.



Markelekin Sakana Group-en . UTZITAKOIA

3x3 Ziordia Saski Torneo solidarioa uztailean

SASKIBALOIA Uztailaren 27an jokatu da, terapia-behar bereziak dituen Markel Carmonaren alde

Uztailaren 27an III. 3x3 Ziordia Saskibaloia Torneo solidarioa antolatu dute, Markel Carmonaren alde. Markel Urnietako haur bat da, oraindik diagnosirik ez duen gaixotasun bat duena. Terapia-behar bereziak ditu, eta saskibaloia torneoan zozketatuko dituzten saskietan ateratzen den guztia bere familiari emango dio antolakuntzak.

3x3 Ziordia Saskibaloia Torneoarekin gaztetxoengana saskibaloia sustatu nahi dute eta goiz ederra pasa. Izena ematea dohainik izango da baina Markelen alde zozketatuko den saskirako txarteltxoren bat erostea derri-gorrezkoa izanen da.

Sakana Groupen laguntza

Markel Carmonaren egoeraren berri ere izan du Lakuntzako Sakana Group-ek, eta Markelendako aulki berezi bat erosi ahal izateko laguntza ekonomiko handia eman du kooperatibak. Markelen aita, Vicente, korrikalaria da eta aitak sarritan Markel lasterketetara eramaten du aulkitxo batean, haurrari oso ongi doakiolako, baina aulki bereziago bat behar du Markelek, eta hura erosi ahal izateko laguntza lortzen ari dira. Sakana Groupek emandako laguntzagatik "oso eskertuta" dago familia.



Sakanako Futbol Campusean trebatzen ari diren neska-mutikoak, Iokin Lobo, Maalen Beraza eta Tasio Merchan monitoreekin eta Errealeko Ixaso Uriarte jokalarirekin.

Futbol campusa baino askoz ere gehiago

FUTBOLA Uharte Arakilgo futbol zelaietan gauzatzen ari da Mank-ek aurten antolatutako Sakanako Futbol Campusa. Aste honetan 39 neska-mutiko ari dira trebatzen eta hurrengo astean 13. Futbol jokalarien bisitak dituzte eta San Mamesen egon dira

Uharte Arakilgo igerilekuen albo-alboan dagoen futbol zelaiak hartuko du aurten Sakanako Mankomunitateak hainbat entitatekin laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol Campusa. Toki paregabea da, ondoan igerilekuak, parkea, merenderoa eta Beriain dituelako. "Oso gustura gaude, tokia primerakoa da. Aste honetan 2007-2009 urteen artean jaiotako 33 mutil eta 6 neska dabilta futboleantrebatzen, eta eguraldiak uzten badu, bukaeran bainua hartzen dugu igerilekuetan" adierazi digu Iokin Lobo Yeregi monitorea. Berarekin batera Maalen Beraza Etxarri eta Tasio Merchan Fernandez monitorea dabilta 39

neska-mutikoekin futboleantrebilduta. Hurrengo astean nagusiagoak trebatuko dira Sakanako Futbol Campusean, 2004-2006 urteetan jaiotako 13 mutil.

Uriarte eta Azkona

Sakanako Futbol Campusean, guztia ez da futboleantrebilduta. Asteartean Errealeko Ixaso Uriartere jokalarirekin bisita izan zuten, eta denetariko galderak egiteko aukera izan zuten neska-mutikoek. "Zenbat gol sartu dituzu?", "Espainiako selekzioarekin aritu zara?" eta halako galderak egin zizkioten neska-mutikoek, begiak zabalzabalik zituztela. Berarekin ere entrenatzen aritu ziren. Gaur,

ostiralean, Athleticen jokalaria Ane Azkona irintarra hurbilduko da Uharteko futbol zelaira.

San Mamesera txangoa

Horretaz gain, atzo, ostegunean, Sakanako futbol campuseko bi txandako neska-mutikoek txangoa egin zuten Bilbora. Goizeko 10:00etan abiatu zen autobusa, eta eguerdian Athleticen museoa bisitatu zuten San Mamesen. Ondoren, San Mames Barrian tourra egin zuten, zelai zurigorriaren nondik norakoak ezagutzeko eta segidan, Getxorako bidea hartu zuten, Ereaga hondartzan egun pasa egiteko. Bukatzeko, autobusa hartu eta 20:15ak inguruan iritsi ziren Altsasuko autobus geltokira.



Sakanako futbol campusekoak Errealeko Ixaso Uriartere galdezka.

Osasuna campusa

FUTBOLA Aurreko astean egin zen Osasuna futbol campusa Etxarri Aranatzan, Osasuna Fundazioak Etxarri Aranazko Udalarren eta futbol taldearen laguntzarekin antolatutakoa. 4 eta 12 urte bitarteko 27 mutil trebatu ziren futbolaren nondik norakoetan, Aitor Lanaskan zuzendariarekin eta Imanol Lobo eta Jokin Bereziartu monitoreekin.



Etxeberria eta Uncilla protagonistak Urdiainen

TXIRRINDULARITZA Sakana Group-Aralar taldeko Martxel Etxeberria iturmendiarrak irabazi zuen II. Urdiain Saria, Burundako Quesos Albenizko Mikel Uncillari esprintean gailenduz. Uncillak mendiko saria eta kadeteen lehen urteko saria jaso zituen

Asteartean kadeteen II. Urdiain Saria jokatu zen, Burunda Txirrindularitza Taldeak hainbat babeslerekin antolatutakoa. Atzera ere talde sakandarrak probako oilarrak izan ziren. Urdiain, Iturmendi eta Ziordia artean jokatu zen 51 km-ko lasterketa, eta Altamira bitan igo behar izan zuten txirrindulariek.

Erritmo oso handian ibili ziren txirrindulariak eta etengabe erasoak izan ziren. Azkenean, faboritoen taldetxoak geratu zen aurrean. Faboritoei ongi kontrolatu zuten burua, eta, azkenean, bost txirrindulariz osatutako taldea izan zen helmugara batera iritsi zena. Urdiainera igotzeko maldan esprint oso estua izan zuten eta Sakana Group-Aralar taldeko Martxel Etxeberria izan zen lehena (1:20:16), Burundako Quesos Albenizko Mikel Uncillaren aurretik. Cafenasako Nicolas Gomezek osatu zuen podiuma eta Aimar Tadeo (Sakana G.) 7.a sartu zen. Garaipena



Urdiaingo maldan gorako esprint estuan Etxeberria gailendu zen.

UNCILLAK BILDU ZITUEN TROFEO GEHIEN: BIGARRENA, MENDIA ETA LEHEN URTEKO KADETEA

lortzeagatik oso pozik zegoen Martxel Etxeberria. Iturmendi-koak pauso bat eman du aurrera eta denboraldiko bere hirugarren garaipena da hau.

Gainontzeko sakandarrak tantaka iritsi ziren. Jon Chamorro

(Q. Albeniz) urdiaindarra 18.a iritsi zen herriaren etxe pareko helmugara, 59 segundora, Jon Erdozia etxarriarra (Sakana G.) 19.a sartu zen, 1:03ra, Alex Lopetegi (Sakana G.) 25.a, 1:17ra, Oihan Etxeberria (Q. Albeniz) 35.a, 2:07ra, Unax Trevejo (Q. Albeniz) 37.a, 2:11ra, Aitor Ondarra (Sakana G.) 39.a, 2:11ra, eta Julen Guerrero (Q. Albeniz) 44.a, 2:11ra.

Martxel Etxeberriak garailearen kopa eta lore sorta jaso zituen, baina trofeo gehien pilatu zituen Mikel Uncilla izan zen. Etxeko txirrindulariak bigarrenaren trofeoa, mendikoa eta kadeteen lehen urteko eraman zituen etxera. Tartekako helmugan saria El Proex taldeko Diego Ruiz de Arkatek jaso zuen eta Urdiaingo lasterketako talderik onena Gama-Scania-Erroy Eugui izan zen.

Sergio Lopez 5.a Undianon

Igandean Kadeteen Lacturale Trofeoa jokatu zen Undianon (58 km). Zatika taldeko Nicolas Alustiza bakarrik iritsi zen helmugara (1:40:50). Top-10ean, Quesos Albenizko Sergio Lopez 5.a sartu zen, 11 segundora; eta 10.a Martxel Etxeberria, 27 segundora. Hugo Aznar (Q. Albeniz) 13.a sailkatu zen, Oihan Etxeberria (Q. Albeniz) 32.a, Aimar Tadeo (Sakana G.) 33.a, Mikel Uncilla (Q. Albeniz) 40.a, Alex Lopetegi (Sakana G.) 55.a eta Unax Trevejo (Q. Albeniz) 57.a.

Sakandarrak Espainiako Txirrindularitza Txapelketetan

TXIRRINDULARITZA

Aramendia, Etxeberria, Lasa eta Izagirre Murtzian lehiatu ziren

Asteburuan Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Murtzian. Txirrindulari profesional, elite eta amateur onenak bildu ziren bertan, tartean lau sakandar, Goierriko TB-Laboral Kutxako Eneko Aramendia iturmendiarrak eta Ailetz Lasa ziordiarra eta Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria iturmendiarrak, hirurak afizionatuen 23 urtez azpikoak, eta Ziordian bizi den Gorka Izagirre txirrindularia, Astana taldeko elitea. Lan oso txukuna egin zuten guztiek.

Eneko Aramendia zazpigarrena

Eneko Aramendia, Josu Etxeberria eta Ailetz Lasa Nafarroako selekzioarekin aritu ziren 23 urtez azpiko errepedeko proban (157,8 km) Unai Esparza, Asier Etxeberria, Carlos Ruiz eta Migel Azkonarekin batera. Ongi aritu ziren nafarrak. Eguneko ihesaldian Eneko Aramendia sartu zen, eta Andaluciako Carmelo Urbanok irabazitako lasterketan (4:03:31) zazpigarrena sartu zen iturmendiarrak, 3:25era. Josu Etxeberria 67.a iritsi zen, 10:34ra, eta Ailetz Lasak ez zuen proba bukatu.

Gorka Izagirre hirugarrena erlojupekoan

Eliteen mailan Astana taldeko Gorka Izagirre oso fin ibili zen Espainiako Txapelketetan. Yec-lan jokaturako 39,4 km-ko erlojupekoan Jonathan Castroviejo (Ineos Team) izan zen azkarrena (46:01) eta Gorka Izagirre podiumera igo zen, hirugarrena sailkatu baitzen, minutu pasara (47:29). Errepedeko lasterketan (194,9 km) Alejandro Valverde (Movistar Team) eta Luis Leon Sanchezek (Astana) lehia oso estua izan zuten eta esprintean Valverde gailendu zen (4:33:49). Gorka Izagirre 24.a iritsi zen helmugara, 28 segundora.

Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre 100. Frantziako Tourrera

TXIRRINDULARITZA Bihar hasiko da Tourra, eta taldeko liderrendako egingo dute lan sakandarrek

Sanferminekin batera, bihar, larunbatean abiatuko da Frantziako Tourra. Aurten data borobila du Tourrak, 100 urte betetzen baititu Le Grande Boucle. Zifrak ikusgarriak dira: munduko 22 talderik onenak lehiatuko dira, 176 txirrindulari guztira, alboan 450 teknikari eta laguntzaile dituztela. 21 etapetan 3.480 km egingo dituzte eta 30 mendi gain gaudituko dituzte. 7 etapa lau, 5 etapa gorabeheratsu, 7 mendi etapa, taldekako erlojupeko bat eta erlojupeko indibiduala izanen dituzte. Azkenaldi-

ko Tourrik menditsuena izango da aurtengoa, eta bertan oso ongi moldatu beharko du maillot horria jantziko duenak.

Fuglsang, Landa eta Quintana laguntzera

Bi sakandar ariko dira: Hiriberriko Imanol Erbiti (Movistar Team) eta Ormaiztegiakoa den baina Ziordian bizi den Gorka Izagirre (Astana). Biak txirrindulari oso estimatuak dira tropelean eta euren liderren alde lan egiteaz gain, euren aukerak aprobetxatzen saiatuko dira.



Imanol Erbiti. PHOTO GOMEZ SPORT / MOVISTAR

Astanak talde indartsua prestatu du. Dauphine irabazi ondoren, aurtengo sorpresetako bat izaten jarraitu nahi du Jakob Fuglsang liderrak, eta bide horretan egingo du lan Astanak, Izagirren laguntzarekin.

Bestalde, Movistar Team da Frantziako Tourreko talderik beterranoena, Unzuek eta Jose Luis Arrieta zuzendari uharterrak talde ikusgarria prestatu dute, bi liderrekin: Mikel Landa eta Nairo Quintana. Haiek laguntzen daudenen artean luxuzko gregarioa dago, Imanol Erbiti. Hiriberriko txirrindulariak 35 urte ditu eta aurten bere 10. Tourrari ekingo dio, guztiak jarraian. 2012an erorikoa izan zuen eta proba utzi behar izan zuen, baina gainontzeko edizio guztietan Tourra bukatzea lortu du.

Faboritok

Dumoulinen eta Froomen faltan, aurten Fuglsang (Astana), Thomas (Ineos), Quintana eta Landa (Movistar Team) eta Pinot (Groupama-FDJ) daude faboritoen artean. Has dadila ikuskizuna.



Irati Urrestarazu artista Rekalde aretoko erakusketan. UTZITAKOIA

"Abandonatutako elementuak interesatzen zaizkit"

IRATI URRESTARAZU ZUBIZARRETA ARTISTA

Estetikaren beste begirada bat proposatzen du Irati Urrestarazu Zubizarreta artista altsasuarrak. Bilboko Rekalde aretoan erakusketa mustu berri du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Bilbo "hiri artistikoa" dela esan du Irati Urrestarazu Zubizarreta altsasuarrak. Hortaz, bertan egiten ari da bere ibilbide artistikoa. Azken bi urte hauek "garapen-hasiera" urteak izan dira, eta atzo Rekalde aretoan erakusketa mustu zuen Barriak 2019 programaren baitan.

Barriak 2019 programaren barruan Rekalde aretoan erakusketa mustu duzu. Zer da Barriak 2019?

Barriak Bizkaiko diputazioak ibilbide luzerik ez dugun edo

hasten ari garen artistak bultzatzeko beka bat da. Proiektua gauzatzeko laguntza bat da. Eta parte hartu dugun artisten artean hautaketa bat egiten dute eta Rekalde aretoko sarreran dagoen Gabinete Abstraktua deitutako

"JOAN DEN URTEA ETA AURTEN BAT-BATEKO AIRERATZE MODUKO BAT IZAN DIRA"

aretotxoan erakusketa bat egiteko aukera ematen dute. Lau artista berri aukeratzen dituzte. **Zein da zure proposamena?**

Eskultura eta elementu desberdinez osatutako instalazio zabal bat egin dut. Hainbat materialekin sortutako elementuen arteko konposaketa bat da.

Zertan oinarritu edo inspiratu zara? Naturalaren eta artifizialaren arteko dikotomia edo harremana interesatzen zait. Guk gure inguruarekin erlazionatzeko dugun modua. Betidanik interesatu

zaizkit inguruan abandonatu edo interes gutxi dituzten elementuak. Gauzek erabilerarik ez dutenean eta botata gelditzen direnean, nik interesgarriak aurkitzen ditut. Plastikoarekin, burdinarekin eta eskaiolarekin sortutako piezak ere daude. Gure inguruan sortzen ditugun ekintza bortitz horiek guztiak, nire lanean islatzen ditut. Horregatik, nire lana egiteko biolentzia horrekin sortzen dut. Materialak mugaraino eramaten ditut. Nire sortze prozesua horrelakoa da.

Zure estiloa jarraitu duzu?

Behin amarekin hitz egiten esan zidan txikitzen gainontzeko haurrek hondartzan txirlatxoak eta horrelako gauza politik hartzen zituztela, eta ni, aldiz, herdoildutako iltzetan, taila zatietan eta horrelako elementuetan ohartzen nintzela. Poltsikoak beti horrelako gauzaz beteta neuzkan. Eta gogoratu nintzen amak esandako horretaz eta ideia gustatu zitzaidan. Hortik tiratzen hasi nintzen eta interesa galdu zaien elementu horiei interes bat edo bizitzeko aukera bat ematen diet. Elementuak eta materialak nahasten ditut.

Zer suposatzen du Rekalde aretoan erakusketa bat egiteak?

Rekalde aretoa oso handia da, eta erakusketa jarri dudan lekua erakusleihen moduko bat da, eta nire proposamen hori kontuan hartuz egin dut, hau da, kanpotik ikusiko dela kontuan hartuz. Horrekin jolastu dut. Bestalde, Rekalde aretoan erakusketa egitea aukera ikaragarria da izen handiko areto bat delako. Gainera, laguntza ekonomiko bat dago ere eta sortzeko dauden baldintzak oso onak dira.

Aurretik Bilboko aretoan ere beka lortu zenuen.

Joan den urtea eta aurtuen izaten ari dira bat-bateko aireratze moduko bat. Laguntzak jasotzen ari naiz. Bilboko aretoan beka produktorako beka oso ona da eta guk normalean gure tailerretan ez ditugun elementuak, materialak, makinak eta espazioa bera eskaintzen digute. Gozamen da. Rekalde aretoko erakusketa egin ahal izateko bikaina izan da.

"OKELA ESPAZIOAK ARTEAREN MUNDUAN JARRAITZEKO GERTATU ZAIGUN GAUZARIK ONENA DA"

Artearen diziplina guztietatik, zergatik eskultura?

Txikitatik, baita ikasketetan ere pintatu izan dut. Baina pintura-rekin zerbait falta zitzaidan. Orduan, duela hiru urte inguru eskulturaranzko traspasoa egiten hasi nintzen. Gainera, eskultura egiten dudanean elementu piktoriko asko erabiltzen ditut. Beraz, bi diziplinak uztartzen ditut. Marraketatik edo argazkietatik hasten naiz, eta batzuetan erakusten ditut eta beste batzuetan ez. Eskultura modu instalatiboan egiten dut. Pieza desberdinak egiten ditut eta horien arteko harremanak bilatzen ditut. Horrela, hurrengo erakusketan elementu bereberekin gauza oso desberdinak sor ditzaket. Bizitasun hori gustatzen zait.

Okela espazioaren sortzailetako bat izan zinen. Zer eragina izan du espazioak zure ibilbidean?

Arte Ederrak amaitzeaz geundela ikasketak amaitu eta zer egin ez genekiela proiektu bat sortzeko gogoak sortu zitzaizkigun. Hasiera batean gure tailerra izan behar zen, baina espazioa oso gaizki zegoen eta konpontzen ari ginela, panorama artiskoaren gabeziei buruz hitz egin genuen. Eta hortik sortu zen Okela. Okelak eskaini diguna, lana izateaz gain eta ekonomikoki, nahiz eta prekarioa izan, sostengatzen gaituena izateaz gain, artetik oso gertu egotea da. Elkarlanean gure heziketa prozesuarekin jarraitzea eskaini digu. Artearen munduan jarraitzeko gertatu zaigun gauzarik onena da.

Altsasun gelditu bazina, zure ibilbidea holakoa izango zen?

Ez dut uste. Beste lan batean hasiko nintzateke eta artearen munduan mantentzea zailagoa izango zen. Bilbo hiri artistikoa da eta gauza asko gertatzen dira. Bertan egoteak bultzatzen zaitu lanean jarraitzera eta hor mantentzera. Artearen mundua nahiko lan zaila da, eta ekonomikoki mantentzea zaila da. Beraz, erraza da amore ematea. Bilbon egoteak aukera eman dit.

Etorkizunerako?

Diru-laguntzak eta bekak eskatzen jarraitzen dut. Orain publikatuko dituzte diru-laguntza eta sari deialdi batzuk. Pixkanaka batetik eta bestetik aurrera jarraitzen dut. Momentuz hainbat proiektu atera dira, Getxoarteko komisiariotza, esaterako. Beraz, etorkizunean oraindik lana badago. Lasai-lasai, aurrera.

Bakaikuko leku-izenak euskara sustatzeko

Bakaikuko leku-izenak bildu eta aztertu ditu Jesus Ondarra Erdozia bakaikuarrak. Orain, ikerketa hori liburu batean islatu du: 'Bakaikuko leku-izenez hausnarrean'. Aurreko ostiralean Bakaikun aurkeztu zuen, eta herriari "eskertua" dago

BAKAIKU

14 urte inguru zituenean eta frailetako ikastetxera joaten zenean, indioen eleberriak irakurtzen zituen. Eta horretako batean Urdinbideko zelai lekua agertzen zen. "Nik orduan esan nuen guk Bakaikun ere bageneukala horrela deitzen zen leku bat". Beraz, izenen eta leku-izenen jatorria eta esanahia ezagutzeko zaletasuna "betidanik" du Jesus Ondarra Erdoziak. Orain, Bakaikuko toponimiaren inguruko ikerketa bat egin, eta liburu batean bildu du: *Bakaikuko leku-izenez hausnarrean*. Pamiela argitaletxean publikatu du, eta aurreko ostiralean aurkeztu zuen Bakaikun. Liburuak herrian "harrera zabala" izan duela esan du Ondarrak, eta herriari eskertua dagoela.

"Nire buruari eta herriari zor nien liburua". Jesus Ondarra Erdoziak urteak darama Bakaikutik kanpo, baina "bertan jaio, bizi eta hilko" den jendeak "inbidia" ematen diola aitortu du. Horregatik, herriko leku-izenen inguruko liburua "eskertzeko" modu bat izan da, "han gelditu direnak mantendu dutelako herria". Horrela sentitu du beti Ondarrak.

Liburuaren helburu nagusia Bakaikun euskara sustatzea dela esan du Ondarrak. Gainera, bizimodua aldatu denez "toponimoak eta lekuak" lehen bezala ez dela ibiltzen esan du. "Izen asko galdu dira, beste izen askoaren lekua zein den ez da jakiten eta erdal testuinguruan erabiltzen izenak desitxuratzen joan dira". Horregatik, Ondarraren nahia "joera hori gelditu" eta "atzera egitea" da: "guk jaso genituen, eta gorde genituen bezala, erabilgarri eta ulergarri egin, eta esanahia eman". Toponimiaren erabilera berriz sustatu nahi du.

Bakaikuko toponimia ulertzeko "kanpora ere" jo behar dela



Jesus Ondarra, eserita, Bakaikun egindako aurkezpenean. UTZITAKOIA

"NIRE BURUARI ETA BAKAIKURI ZOR NIEN; HAN GELDITU DIRENAK MANTENDU DUTE HERRIA"

azaldu du Ondarrak. Burunda osora, Etxarrakora eta Ameskoako "zerbait" ere ikusi behar izan duela dio. "Ereku zabalgotik ikusi behar duzu ulertu ahal izateko". Ikerketa hau egiten "urteak" pasa ditu Ondarrak. "Nire burua beti dago lanean". Izen bat entzuten duenean makinaria lanean jartzen da. Hala ere, ikerketarekin hasi zenean "ez nuen pentsatzen honaino iristea". 400 orrialdeko liburu bat argitaratu du. "Ez nuen hain zabala eta sakona izatea espero". Hasieran Bakaikuko izen "batzuk" argitu eta "artikulutxoren" bat biltzea zen bere helburua, baina lanean hasi zen eta "gauza korapilatuz joan da".

Liburuia idazteko bi lan izan ditu: alde batetik, landa lana, hau da, Bakaikuko lekuetatik eta basoetatik ibili da Ondarra, eta, bestetik, dokumentuetan

egindako bilaketak ere. Hortaz, Bakaikuko eta Etxarri Aranazko udaletxeetako artxibategian eta Nafarroako Artxibo Orokorrean bilatu du informazioa. Guztira, 289 izen nagusi agertzen dira liburuan. "Leku ia guztietan egon naiz hainbat aldiz, uste dut bakkarik hiru edo lau lekuetan ez naizela egon, zailak eta nire adinerako arriskutsuak direlako". Lana handia izan den arren "disfrutatu" duela esan du Ondarrak.

Bakaikuko leku-izenez hausnarrean liburua lau ataletan banatuta dagoela azaldu du Ondarrak. Hasiera moduan kontzeptu orokorreari buruz hitz egiten du bakaikuarrak, gero gramatika hizpide batzuk aipatzen ditu eta azentuei buruzko hainbat datu ematen ditu ere. Hortaz, atal hau ez du asko garatu, euskal azentuari buruzko proiektu berri bat duelako buruan. Gainera, liburu honetako gaia toponimia zen. Beraz, liburuaren "enborra" edo "bizkarrezurra", ia 300 orrialde hartzen dituena, leku-izenen atala da.

Ostiralean liburuaren aurkezpena egin zuen Bakaikun. Bakaikuko udalak zabalitzen lagundu du: 150 ale erosi dituelako Bakaikuko etxeetan zabalteko.



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Udarako hiru liburu

HIJAS DE EGALIA

(Gerd Brantenberg, 1977 Norveia)
Liburu honetan gure egunerokoan ohikoak diren egoera asko aurkezten dira aldaketa "txiki" batekin: rola aldatuta.

Idazleak aurkezten digun gizartean, emakumeak dira kanpora joaten direnak, botere postuetan daudenak, ekonomia kontrolatzen dutenak... eta gizonezkoak etxean gelditzen direnak, umeak zaintzen dituztenak eta amodioaz eta modaz kezkatzen direnak.

Rol aldaketa hauek behin baino gehiagotan ikusi ditugu bai literaturan bai zineman. Hala ere, hemen pausu bat urrutiago joaten da, hizkuntza ere horren arabera aldatzen baita; munduaren interpretazioa emakumeek eginez gero, horrela izendatua izango da: parlamenta, sociedad hembra, movimiento masculinista...

Hasierako kapituluetan hizkuntzaren erabilera bitxia, barregarria egiten zaigu; baina aurrera joan ahala, konturatu gara barneratuta ditugun egoera batzuk erabat absurdoak direla.

Imajina hilerkoaren festa ospakizuna Konstituzio eguna ospatzeko egiten den festaren moduan...

BILBO SAMURAI

(Fernando Morillo)

Bilbo Samurairen historia da hau. Bizkarrean daraman sega eta Xuri gaztea bidelagun, herriz herri eta borroka borroka dabil Bilbo, Hondamendiaren aurretik Euskal Herria deituriko lekua.

Bidean "Dorre zuria" paperezko liburuak, zibilizazioaren altxorra, eta hauek gordetzen dituen zaindariarekin egingo dute topo, besteak beste.

Zientzia fikzioa, abentura, adiskidetasuna, maitasuna, akzioa... Eta gainera euskaraz!!!

PINTTO

(Magali Le Huche)

Txikienetako Pintto eta hainbat musika motarekin lotuta argitaratu dituzten bost ipuin interaktibo edo elkarreragile: *Pintto eta orkestra*, *Pintto eta fanfarrea*, *Pintto eta rocka*, *Pintto eta musika afrikarra* eta, *momentuz azkena dena*, *Pintto eta opera*.

Zergatik elkarreragile? Bada, liburu bakoitzean Pinttoren bizipena kontatzen digun bitartean, agertzen diren 16 instrumentuak entzun ahal ditugulako bozgorailuaren marrazkia sakatuz. Soinua kalitate oso onekoa da eta horrek egiten du erakargarri bai haur, bai ez hain haur, bai helduendako.



Burundako hiztegia martxan da

Koldo Zuazo Burundako hiztegia osatzen ari da, eta Urdiaingo festen bezperan proiektua aurkeztu zuen. Burundako hizkera hobekien gorde den herria dela dio Zuazok. Hiztegia ez dago bukatuta: momentuz 2.800 hitz bildu dituzte, eta 0 letrarekin ari dira orain. Guztira, 4.500 hitz bilduko ditu hiztegiak. 2021eko abenduan aurkeztu nahi dute.



'Akelarre' filmaren grabazioaren une bat. DAVID HERRANZ

Egun batzuetan XVII. mendeko sorginak bihurtu zirenekoa

Urbanas geldialdia egin zuen 'Akelarre' filmak, eta Altsasuko lagunek parte hartu zuten filmazioan

SAKANA

Akelarre filma grabatu dute zapi astetan Euskal Herriko hainbat herritan eta txokotan, eta Urbanas ere izan dira. Gainera, Sara Mazkieran filmean zuzendari laguntzailea da eta Altsasuko zenbait pertsonak figuranteak eta protagonisten ordezkokoak izan dira. Esperientzia "ikaragarria" bizi izan dute filmazioan.

XVII. mendeko sorginen aurkako ehizan oinarritzen da *Akelarre* filma. Pablo Agüero argentinarra da zuzendaria eta 1609. urteko Pierre de Lancre inkisidorearen *Tratado de Malos Angeles y Demonios* liburuan inspiratu da pelikula egiteko. Baina emakumeari buruz ikuspuntu politiko aldarrikatzaile eta gaur egungotik hitz egiten du. Hortaz, sei neskatoen istorioa kontatzen du. Gizonak itsasora joan dira eta neskatoak bakarrik gelditu dira. Sorginak direla salatzen dute, eta inkisidoreak edozer gauza egingo du akelarreaki buruz dakiten guztia ezagutzeko.

Irantzu Gonzalez dantzariak dei bat jaso zuen Altsasun duen dantza eskolan. Casting agentzia batek neskak behar zituen Akelarre filmaren protagonisten ordezkokoak izateko. Hortaz, ile beltza eta luzea zuten hiru neska eta bi ilehori behar zituzten. Igone Augusto, Irantzu Gonzalez eta Nerea Llamas dantzariak eman zuten izena, neurriak bidali zituzten, baita argazkiak ere. Aukeratu zituzten: "protagonisten ordezkokoak izan behar ginen, beraz, beraien ezaugarriak

izan behar genituen". Ondoren, soldaduen papera egiteko gizonak behar zituztela esan zioten Gonzalez, eta, besteak beste, Aitor Arroyo animatu zen.

Urbanas grabatu zuten protagonisten ordezkokoak. Gainera, Gonzalez Beran ere egon zen. "Haiek interpretatzen zuten bitartean, guk korrika egiten genuen, saltatzen genuen...". Orokorrean, protagonistak minik ez hartzeko eta ez nekatzeko eszenak grabatu zituzten. Hala ere, protagonistak bezala sentiarazi zituzten: "jantziak jantzen zizkiguten eta ezin genuen ezer ukitu, makillajearekin bezala...". Izan ere, *Akelarre* ekoizpen handia izan da. "Ikaragarria izan zen". Esperientzia aberasgarria izan dela diote.

Aitor Arroyok inkisizioaren soldaduen papera egin du, eta figurantea izan arren, filmean "nahiko pisua" izango duela uste du. Oso gustura aritu da. "Lehen planoak ere egin zizkidaten". Gainera, soldadu jantzi propioa zuen, izan ere, filmazioaren sei egunetan parte hartu zuen altsasuarrak: "jantzia egiazkoa zirudien. Oso ongi egina zegoela". Eszena batean Gonzalezek eta Arroyok planoak konpartitzen dute: "eramaten nauen soldadua da Aitor". Hain gustura egon zen, beste filmazio bat suertatzen bada eta libre badago, parte hartuko duela esan du.

Errodajeen "gogorrik" izan direla diote; izan ere, "ordu asko dira, hamabi ordu inguru egoten ginen. Baina gero hiru orduz baino ez duzu grabatzen".

25 urtez Altsasuren esentzia biltzen

Altsasuko Sustraiak Ulibarrenaren eskultura jarri zutela 25 urte bete ziren San Joan bezpera egunean. Foru plazan zegoen intxaurrendaren zurarekin egin zuten. Zuhaitza herriko sinbologia zen, eta Altsasuko eskultura sinbolo bihurtu da

ALTSASU

1994eko San Joan bezperan mustu zuten *Altsasuko Sustraiak* eskultura. Duela 25 urte. Altsasu irudikatzen duen eskultura Foru plazan zegoen intxaurrendaren zurarekin egin zuen Jose Ulibarrenaren eskultorea. Altsasuarren artean oso estimatua da eskultura, are gehiago, denborari aurre egin dio eta etsai bakar bat izan du: klimatologia. Izan ere, urte hauetan jasandako kalteak euriak, eguzkiak eta abarrek sortu dituzte. Hortaz, 2018. urtean eskulturaren egoera oso "larria" zen, eta eraberritzeko prozesua martxan jarri zuten. Elur Ulibarrenaren zaharberritzailea eta eskultorearen alaba izan zen eraberritzearen proiektuaren zuzendaria, eta eskultura orain "bikain" dagoela esan du.

"Nik nabarmenduko nuke zer nolako indarra duen". Altsasuren bizitzaren eta historiaren pasarteak kontatzen ditu Foru plazan dagoen eskulturak. "Esentzia eta sustraiak". 1991era arte Foru plazan zegoen intxaurrendoa egoera larrian zegoen, hilda zegoen, eta moztu zuten. Zuhaitza oso maitatua zen herrian, sinbolo bat zen. "Bai aitak bai nik badakigu zer nolako garrantzia zeukan zuhaitzak, baita gaur egun eskulturak duen garrantzia ere". Ulibarrenak Enrike Zelaiaren eta herritar talde baten proposamena jaso zuen, eta altsasuar hauek zuhaitzari buruz hitz egiten transmititu zutena "hain handia eta indartsua" zen, eskultoreak hori islatu zuela eskulturaren.

Plazako intxaurrendoa sinbolo bat zen, eta orain *Altsasuko Sustraiak* sinbolo bihurtu da ere. Are gehiago, Altsasuko auziaren harira antolatutako manifestazioetarako irudi bezala hartu zutenetik, Altsasuko eskultura Altsasuren irudia bihurtu da. Izan ere, eskulturak herria den guztia islatzen du. 38 irudiez osatuta dago, "figura bakoitza eskultura bat



'Altsasuko Sustraiak' Jose Ulibarrenaren eskultura.

da", eta figura horiek bi eskultura osatzen dituzte. Eskultura handian, Altsasuko identitatearen esentzia islatzen da: Burundako mendiak eta basoak, nekazarria, artzaina eta trenbidea, musika, kobazuloak, emakumea, erre-montaria eta abar. Eskultura txikia hamar figurek osatzen dute eta Altsasuko inauteriak islatzen ditu. "Altsasu da; izan zena, gaur egun dena, eta gehiago".

Ezer ez da betiko

"Garrantzia dauka ahaztu behar ez duguna. Nondik gatozen". Elur Ulibarrenaren eskulturaren eraberritzearen zuzendaria izan da. Iaz hasi zuten prozesua auzolanaren bidez. Kanpoan egoteak kalte handia egin dio eskulturari. Klimatologiaren elementuek sortu ditu kalte gehienak. 25 urtez oso gutxi izan dira jasan dituen erasoak. "Kontziente gara eskultura oso estimatua eta maitatua dela, zuhaitza izan zen bezala".

Egurra materia organikoa denez, pixkanaka "hilko" dela esan du Ulibarrenak. Jose Ulibarrenak duela 25 urte eskultura egin zutenean kontserbatzeko hainbat pautu utzi zituen idatzita, eta lehenengo bost urtetan bete zi-

rela esan du bere alabak. Hala ere, "garai horretan zeuden zaharberritzeko materialak eta gaur egungoak aldatu dira". Hortaz, linaza-olioa botatzea proposatu zuten eskultoreak, eta gerora jakin da ez dela gomendagarria.

Pixkanaka eskulturaren kolorea galdu zen eta egurra zimurtzen hasi zen. Barrualdea hutsik zegoela ikusi zuten eraberritu zutenean, enborren azala baino ez zen gelditzen. Berandu baino lehen Elur Ulibarrenak eraberritzeko proposamena aurkeztu zuen eta udalak 16.000 euro bideratu zituen eskultura tratatzeko. Laster berniza botako diote.

"Argi izan behar dugu, ez dela betirako izango. Ezin dugu zerbait betirako kontserbatu". Artelan guztiekin gertatzen omen da. Horregatik, proposamen bat dauka Ulibarrenak: "3Dan eskaneatu eta informazio hori gorde etorkizuneko eskultura berri bat, kopia bat, egiteko". Izan ere, gaur egungo belaunaldiak zuhaitza maite eta gogoan dute, baina belaunaldi berriek eskultura bakarrik ezagutzen dute. Eskulturak dioena eta sinbologia. "Esanahia da garrantzitsuena, eta hori mantendu behar dugu".

"Ez ditut sanferminak musikarik gabe ulertzen"

Arkaitz Martinez urritzolarrak saxofoia jotzen du; eta, horri esker, sanferminak modu berezi batean disfrutatzen ditu: Zizur Nagusiko Galtzagorri txarangarekin aritzen da. Hamar urte daramatza Iruñeko kaleak girotzen

Erkuden Ruiz Barroso URRITZOLA

1 Nola hasi zinen Galtzagorri txarangaren jotzen?

Gizon bat herrira etorri zen eta saxofoia jotzen ikusi ninduen. Esan zidan ea nahi nien jotzen lagundu. Duela hamar urte inguru izan zen. Normalean laguntza behar dutenean deitzen didate, eta sanferminak nahiko gogorrak izaten direnez, urtero joaten naiz.

2 Egutero aritzen zarete?

Ez goaz Iruñeko peñekin, Udalak kontratatzen gaitu. Hortaz, txaranga honek sanferminetan hiru egunetan jotzen du. Txupinazoan beti Antoniutti parkean jotzen dugu; eta, gero, beste bi gau. Aurten aldatu da eta bi gau izan beharrean arratsalde bat eta gau bat izango dira. Gauean Alde Zaharrean ibiltzen gara. Egun bakoitzean ibilbide desberdina egiten dugu.

3 Zer desberdintasun dago peñek eramaten duten txarangekin?

Txarangaren aldetik ez dago desberdintasunik. Guretako desberdintasun bakarra da ez dela peñekin joatea bezain gogorra. Azkenean, peñetan egutero aterara behar da, bai goizez, bai arra-



Arkaitz Martinez saxofoi jole urritzolarra Altsasun.

tsaldez, eta, egunaren arabera, baita gauez ere. Udalak kontratatuta badakigu bakarrik hiru egun izango direla; hori bai, txupinazoaren egunean derrigorrezkoa da. Beste bi egunetan nahiko libre gara eguna aukeratzeko.

4 Beraz, sanferminetaz disfrutatzeko aukera ere baduzu.



Galtzagorri txaranga Iruñean. UTZITAKOIA

Normalean txupinazoaren eguna, uztailaren 6a, aprobetxatzen dut. Niretako egun bereziena da jotzeko ere. Oso giro polita sortzen delako. Beste egunen batean joaten saiatzen naiz ere. Baina bi modutara disfrutatzen dut.

5 Hamar urte inguru daramazu sanferminetan jotzen. Anekdotak asko izango dituzu.

Oso barregarriak izan ditugu. Esaterako gurekin zetorren tipo bat jotzen ditugun hiru orduak gurekin egon zen. Azken abestian, esan zigun: barkatuko didazue baina hau zuen erdian dantzatu nahi dut. Dantzaten hasi, eta galtzontzilota gelditu zen. Txarrak ere izan ditugu. Larunbat gau batean txaranga bi kideri lapurtzen saiatu ziren. Zorionez, dena ikusi zuen jendea bazegoen eta lapurreta gelditu zuten. Baina denetarik gertatzen da.

6 Jendea txarangarekin joatera animatzen da?

Bai. Behintzat tartetxo bat bai. Tabernak gertu badaude gurekin joaten dira. Taberna urrun gelditzen bada, jendea tabernan gelditzen da. Baina sanferminetan giro asko dago kalean eta horri esker, tartetxo bat bada ere, jendea gurekin egoten da.

7 Zein da sanferminetako errepertorioa?

Denetarik. Urtero abesti berriren bat ateratzen saiatzen gara. Baina denetarik jotzen dugu eta jo behar dugu: Iruñeko Peñak abestia jotzen dugu, jotak, valsak, mexikarrak... Antoniutti familia giroa dago eta errepertorio bat behar da. Alde Zaharrean sartzen garenean musika mugituagoa jo behar dugu.

8 Baloratuak eta errespetatuak sentitzen zarete?

Bai. Normalean, Iruñeko jendeak errespetu handia dio txarangari. Pasatzen garenean edo musika entzuten dutenean azkar egiten dute pasilloa eta lekua. Noski, beste gauza batzuk gerta daitezke, normalean oso edanda dagoen jendeak egiten dituenak.

9 Jende asko bezala, eguraldiari begira egongo zarete.

Denetarik tokatu izan zaigu. Azkenekoetan bero handia egin du, eta gogorra egiten da. Behintzat Antoniutti txupinazoari itxoi-tea, ez dagoela ez itzalik ez ezer, jendez gainezka dagoela... Baina ur edo garagardo pixka batekin pasatzen da. Euriarekin okerragoa da. Instrumentu hauek bustitzea ez da batere ona. Baina atera gara urtero. Sanferminak sanferminak dira.

10 Zer dira zuretzat sanferminak?

Niretako egun bereziena 6a da. Nafarroako hiriburua da eta han jotzea, hainbeste jenderen aurrean, hemengoak eta kanpoak. Presio pixka bat ere sentiarazten du. Ongi egin nahi dut ere. Baina beti gustura aritzen naiz. Txaranga herria eta jendea girotzeko dago, eta hori da niri gustatzen zaidana, musikaz aparte, ateratzea eta jendea animatzea. Ez ditut ulertzen sanferminak musikarik gabe.

11 Baina sanferminez haratago txaranga badauka bizitza.

Bai. Herri txikietan jotzen dugu ere. Azkenekoa, Urritzolako festetan izan zen aurreko asteburuan. Emanaldi ez oso gogorrak hartzen ditu. Haize Berriak bandan jotzen dut ere.

jatetxeko MENUAK

Berritu uda honetarako zure jatetxeko eskaintzen menuak

gk DISEINU GRAFIKOA WEB DISEINUA KOMUNIKAZIOA